

"Nazioartean aspaldiko urteetako emaitzarik onenak lortu ditugu"



Aurtengoa denboraldi gorabeheratsua izan da Agurtzane Elorriagak zuzentzen duen Bizkaia-Durango txirrindulari taldearentzat. Alde positiboan, garaipenak eta nazioarteko hainbat postu on daude; alde negatiboan, ostera, hainbat ziklistak COVIDa igaro dutela eta aspaldiko urteetako talderik onenari ezin izan diotela gura besteko etekina atera. • 2-3



**Durango
Kultur aro
2021**



Urriaren 1etik 31ra arte

**URTEURREN
ESKAINTZAK**

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK



Agurtzane Elorriaga Derteano

Bizkaia-Durango taldeko zuzendaria

IURRETA | 1978

"Taldea osorik izan dugunetan oso ondo ibili gara, baina une batzuetan ia ziklistarik barik ere egon gara"

Aurtengoa denboraldi gorabeheratsua izan da Bizkaia-Durangorentzat. Alde positiboan, garaipenak eta nazioarteko hainbat postu on daude; alde negatiboan, ostera, hainbat ziklistak COVIDa igaro dutela eta ezin izan diotela nahi adina etekin atera aspaldiko urteetako talderik onenari

TXIRRINDULARITZA • J. DERTEANO

Denboraldia amaitzeaz dagoen honetan, Agurtzane Elorriaga Bizkaia-Durangoko zuzendariak urtearen erreposoa egin du. Emaitza azpimarragarriak lortu dituzte eta ematen du etorkizunari itxaropenetsu begiratzeko zimendu sendoko taldea dutela. Baina sufrimendu handiko urtea ere izan dela onartu du Elorriagak, batez ere Giro Arrosan txirrindulari batek ez beste guztiek COVID proban positibo eman zutenetik aurrera.

Denboraldia indartsu hasi zenuten, Valentziako Itzulian garaipen batez, Sandra Alonsoren eskutik.

Gogo handia genuen Valentziako Itzulian parte hartzeko, Sandra Alonso bertakoa delako. Torreviejan bizi da. Etapak oso ondo prestatu zituen, eta gogotsu eta sasoi puntu onean zegoen. Garaipeneko egun hartan, nahiko aldats handia zegoen helmugaren aurretik, eta, sarritan, esprinterrak eskas ibiltzen dira aldats gora, baina Sandrak aurrekoekin batera igaro zuen, beste esprinter batzuk atzean geratzen ziren bitartean. "Irabazteko aukerak ditugu", esanez animatu nituen

gureak. Geratzen zirenen artean, bagenekien bera zela arinenetarikoa. Hori ez da beti garaipenaren sinonimo, baina oso esprint ona egin zuen. Gainera, World Tourreko taldeen artean gu txikiak garenez, jende asko poztu zen gure garaipenagaz eta zorion mezu asko jaso genuen. Oso une polita izan zen. Beste lasterketa batean, Nadine Gil ihes eginda ibili zen eta azken unean harrapatu zuten. Gainera, Lucia González eta Nadine Gil oso aurrean geratu ziren sailkapen nagusian, 25 onenen artean gutxi-gorabehera.

Meritu handiko garaipena da, munduko talderik onenetarikoek parte hartzen zutela kontuan hartuta.

Bai, eta ez da izan emaitza on bakarra. World Tour mailako Burgosko Itzulian bosgarren postu bat lortu genuen eta Belgikako klasikoetan Top 10ak lortu ditugu. Nazioartean aspaldiko urteetako emaitzarik onenak lortu ditugu. Alde horretatik, aurrerapauso bat eman dugu.

Unerik gozonenetik garratzenera. Giro Arrosan, urteko hitzordurik garrantzitsuenetakoa, etxerako bidea hartu behar izan zenuten COVID kasuengaitik.

Horrela da, bai. Hamar egunen barruan hiru PCR proba egin zituzten gure ziklista guztiek eta baita taldeko gainerako kideek ere. Hara ondo joan ginen. Gero, etapa batean gure taldeko lau txirrindulari denboraz kanpora heldu eta lasterketatik kanpora geratu ziren. Orduan,

"Taldea osorik izan dugunetan oso ondo aritu gara, baina momentu batzuetan ia talderik barik egon gara"

oraindino ez genekien zerk eragin zuen hain errendimendu baxua. Etxera bidean, eurentariko batek esan zuen txarto sentitzen zela. Etxera helduan, beste proba bat egin eta positibo eman zuen. Besteoi abisatu eta Giroa utzi genuen. Probak eginda, ziklista bat izan ezik beste guztiak kutsatuta zudelako jakin genuen. Hortxe zegoen txirrindularien errendimendu eskasaren arrazoia. Behintzat, konfinamendua etxean egiteko aukera izan genuen.

Une gogorra izango zen zuentzat. Zelan gogoratzen duzu?

Tentsio eta ardura handiko une desatseginak izan ziren. Baina, tira, denetatik ikasten da eta ez dago besterik egoera onartu eta aurrera egitea baino. Horixe egin genuen.

Beraz, denboraldi gorabeheratsua izan da.

Aurtengo denboraldian gauza onak eta txarrak gertatu zaizkigu. Gorabehera handiak izan ditugu. Giroan gertatu zenaz gainera, txirrindulari batzuek lesioak ere izan dituzte. Taldea osorik egon denetan oso ondo ibili gara, baina une batzuetan ia ziklistarik barik egon gara. Esaterako, Nafarroako klasika bitan ezin izan genuen parte hartu eta Italiako beste biri ere ezetz esan behar izan diegu. Alde horretatik, denboraldi gogorra izan da. Txanponaren alde biak egokitu zaizkigu: zorte txarrak astindu gaituenean ia talderik barik geratu gara, baina talde osoa geneukanean maila handian aritu gara, aspaldiko urteetako talderik onena geneukan eta.

Txirrindulariei asko kostatu zitzairen errekueratzea?

Ziklista batzuk ehuneko ehuneko errekueratze barik daude oraindi-

no. Txirrindulariek txarto pasatu zuten. COVIDak gogor eragin zien. Ez da gripe baten modukoa. Eta kontuan hartu txirrindulari horiek Giroan parte hartzen ari zirela, hau da, sasoi betearen zeuden fisikoki. Kirolarien artean asko kostatzen da sasoi berreskuratzea. Alderdi fisikoari eragiten dionez, goi errendimenduko kirolean hori igarri egiten da. Horrek ez du esan gura ehuneko ehuneko errekueratuko ez direnik, baina bere denbora behar du, prozesu bat da.

"Ziklista batzuk ehuneko ehuneko errekueratze barik daude oraindino; COVIDak gogor eragin zien"

Sandra Alonsoren garaipenak aipatu ditugu. Aurretik ere Bizkaia-Durangon ibilitakoa da eta denbora bat kanpoan eman eta gero aurten taldera bueltatu da. Ez da izan fitxaketa makala!

Gaztea eta oso ona da. Etorkizun handiko txirrindularia da.

Datorren urtean, Bizkaia-Durango taldean jarraituko ote du?

Emaitza onak lortu ditu eta gaur egun aurrekontu handiak maneiatzen dituzten World Tour taldeak daude. Enpresak diru asko sartzen dabilta emakumeen txirrindularitzan.

Azken aspaldian ikusten nabilena da jende nagusiagoa txirrindularitza modu serioagoan praktikatzen hasi dela

Bestela esanda, itxaron egin behar duzue Sandra Alonsoren etorkizuna zein izango den jakiteko.

Horixe bera (barrez).

Bizkaia-Durango Daniela Campos portugaldarra munduko txapelketan aritu da aurten. Zuenaren moduko talde batentzat balio erantsia da halako hitzordu garrantzitsuetan ordezkaritza izatea?

Lehenengo, Sandra Alonsok Europako txapelketan parte hartu zuen, eta, ondoren, Daniela Camposek mundukoan. Guretzat garrantzitsua da, bai. Nondik zetorren ikusita, Daniela oso ondo aritu zen, bai erlojupeko proban, bai errepidekoan. Kontuan hartu behar da bost aste lehenago COVIDa hartu zuela. Gainera, oso txirrindulari gaztea da, 19 urte baino ez ditu. Gazte mailetan oso emaitza onak lortu ditu. Juniorra zela, errepideko Europako txapelketan bosgarren geratu zen eta pistako Europako txapelketa irabazi zuen, kanporaketako proban. Datorren urtean ere gugaz ibiliko da eta oraindino hobeto ibiliko dela uste dut.

Zer falta zaizue denboraldia amaitzeko?

Drenten, Herbehereetan, maila handiko klasiko bi korritzea falta zaigu, urriaren 22ko asteburuan. Horregaz amaituko dugu denboraldia.

Zer itxaropenekin zoazte?

Sandra Alonso, Nadine Gil... Txirrindulari handiak eta indartsuak dira, ibilbide horietarako aproposak: lautada luzeak, aldats gogorrak... Gainera, horrelako klasikoetan oso garrantzitsua da posizio onak hartzea eta txirrindulari biak oso abila dira bizikleta gainean. Lan ona egiteko esperantzazagaz goaz.

Mavi Garciak, gaur egun estuan dagoen txirrindularirik onenak, zuen eskutik eman zuen triatloitik txirrindularitzarako pausoa. Eta aurten Espainiako txapelketa irabazi duenean, Bizkaia-Durangoaz eta zutaz gogoratu eta oso esker oneko azaldu da sareetan. "Zuek barik hau ezinezkoa izango zen", dio. Errekoizimendu polita da.

Bai, jakina. Jendeak zure lana baloratzea polita da. Azkenean, Bizkaia-Durango txirrindulariei

aukerak eskaintzen ahalegintzen gara. Gurea talde txikia da eta txirrindulariak ezin dira horretatik bizi, baina etorkizunean horretarako aukera izan dezaten trebatzen ahalegintzen gara. Bai ziklista gazteak eta baita hain gazteak izan ez arren, mundu hau probatu gura dutenak. Horixe da Maviren kasua eta begira noraino heldu den. Espainiako txirrindularirik onena da eta esango nuke oraindino ez duela goia jo. Hori lortzeko bidean guk geure aletxoak ipini dugula sentitzea polita eta pozgarria da.

Bizkaia-Durango urtero errepidera irteera bera mirari txiki bat da?

Daukagun aurrekontuagaz egiten dugun dena egitea... mirari txiki bat baino gehiago, mirari handi bat da. Alde horretatik, Durango Udalarari eta gure babesle guztiei eskerrak eman gura dizkiet. Eurak barik ez zen posible izango.

Azken hamarkadan Euskal Herrian emakumeen txirrindularitzak gora egin duela uste duzue?

Badator jende gaztea, bai, baina lan handia dago egiteko. Gaur egungo gazteek kirol askoren artean aukeratu dezakete eta txirrindularitza ez da izaten gurasoak gehien erakartzen dituen, errepideko arriskuengaitik eta abar. Kalitateak kantitatek iruten du eta oraindino kantitatez ez gaude sobran.

Azken aspaldian ikusten nabilena da jende nagusiagoa txirrindularitza modu serioan praktikatzen hasi dela. Beraz, harrobi desberdin bi daudela esango nuke: gazte-gaztetan hasitakoak eta gerora hasi direnak. Nagusiak bizikletan gehiago aritzea ona da, afizioa euren seme-alabengana heldu daiteke eta.



Bizkaia-Durango txirrindulariak Giro Arrosa hasi aurreko argazkian: lehenengo etapa taldekako erlojupekoa izan zen



Sandra Alonso, Valentzia lorturiko garaipena taldekide batez ospatzen.



19 urte dituen Daniela Campos portugaldarra da Bizkaia-Durango duen harribitxietariko bat.

Durangoko udalbatzak herrian ospitale bat egiteko aukera aztertu dezan eskatu dio Osakidetzari

EH Bilduk, Herriaren Eskubideak eta PSE-EEk mozio bat onartu dute. EAJ abstenitu egin da, osasun zerbitzua hobetzeko gako "itxarote zerrenda" murriztea delakoan. "Unean unekotzat" jo ditu Galdakaotik Gernikara egin izan diren lekualdaketak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Azken egunotan, zenbait durangar kexatu egin dira osasun arreta jasotzera Galdakaoko ospitalera joan direnean, Gernikakora bideratu dituztelako. Julián Ríos alkateordeak azalpenak eskatu ditu. Bere esanetan, durangar horiek "arratsalde osoak galdu" dituzte atzera eta aurrera, "Durangotik Gernikarako garraio bide falta" dela eta. Horren aurrean, Herriaren Eskubideak, EH Bilduk eta PSE-EEk mozio bat adostu eta onartu dute asteon. Batetik, Aldundiari eskatu diote Durango eta Gernika lotuko dituen "zuzeneko garraio bide" bat ipintzeko. Eta, bestetik, Osakidetzari eskatu diote Durangon ospitale bat eraikitzeko. PSE-EEko Jessica Ruizek onartu du horrelako zerbait ez dela "goizetik gauera" egiten, baina, gutxienez, ospitalea egiteko aukera aztertu dezan eskatu dio Osasun Sailari. EAJk ez du eskaria babestu, abstenitu egin da. Josune

Escota zinegotziak argudiatu du mozioaren edukiak ez duela "osasun zerbitzua erdigunean" ipintzen, eta pandemiak baldintzatutako "unean uneko" egoeratzat jo ditu Galdakaoko ospi-

taletik Gernikakora egindako desbideraketak. Arazoa konpontzeko gako "itxarote zerrenda" murriztea dela iritzi dio EAJk. EH Bilduko Juanan Buenok bere egin ditu mozioko eskariak. Ho-

rez gainera, lehen arreta indartzeko lanetan jarraitzea eskatu du. "Ezin dira murrizketak egin eta beste aldera begiratu. Horrek langileengan eta pazienteengan du eragina", esan du.



Durangoko anbulatorio zaharra.

Ikerketa bat hasi dute Durangoko etxebizitzien egoera eta etorkizuna zein diren aztertzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Udalak ikerketa bat hasi du herriko bilakaera demografikoa eta etxebizitzien erabilera maila zein diren jakiteko. Azterketa horregaz, "tresna egoki bat" sortuko dute, gero "etxebizitza politika egoki bat diseinatuko". Udalak dioenez, Durangok 28.261 biztanle zituen 2010ean, eta kopuru hori %6,6 igo da hamar urtean, 30.118 biztanle izateraino. Baina etxebizitza parkea ez da erritmo berean igo. Kopurua %1,6 hazi da denbora tarte horretan, 2010eko 13.044 etxebizitzetatik 2019ko 13.248 etxebizitzetara pasatuta. Horregaitik, azterketa honetan biztanleriaren eta bizikidetzaren unitateen askotariko ezaugarriak ikertuko dituzte.

Durangoko Udalak AP-8ko bidesaria bertan behera uzteko eskatu dio Aldundiari

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udalbatzak AP-8ko bidesaria kentzea eskatu dio Aldundiari. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak AP-8 Peajerik ez! plataformak planteaturiko mozioa babestu dute. Bertan jasotakoaren arabera, "Durangaldeko bizilagunek orain 50 urte eraikitako eta dagoeneko amortizatutako azpiegitura ordaintzen" jarraitzen dute. EAJ eta PSE-EE abstenitu egin dira. Edozelan ere, udalbatzako lau alderdiak bat etorri dira, gaiak sakoneko eztabaidak eskatzen dituela esatean. Larrialdi klimatikoaz, mugikortasun ereduaz, garraio publikoaz eta auto pribatuaren erabileraz gogoeta egiteko beharrez dagoela iritzi diote.

Hornidura merkatua ustiatzeko baldintzak moldatu dituzte, azoka biziberritzeko asmoz

Durangoko udalbatzak plegu berriak egin ditu. Hornidura merkatuan lanean dabilzan dendarietara berme bat eskaintzeaz gainera, saltzaile berriak erakarri gura dituzte eraikiner

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Saltzaile berriak erakartzeko eta lehendik ere bertan lanean zeuden sei dendarietara berme bat eskaintzeko asmoz, Durangoko udalbatzak eguneratu egin du hornidura merkatuko saltokiak esleitzeko araudia. Alderdi guztiak bat etorri dira. Baldintza berriak ordutegi malguago batez jokatzeko aukera eskainiko diete dendarietara, eta elikadurari loturiko saltokiak ez ezik,



beste eremu batzuetakoak ere ipini ahalko dira bertan. Edozelan ere, gobernu taldeko alderdiek argi utzi dute asmoa merkatuaren izaera mantentzea dela, eta ez dela aterik zabalduko frankizientzat edo enpresa kate handientzat. Oposizioko alderdiak ere pozik agertu dira plegu berriekin, haiek markaturiko neurrietariko batzuek isla izan dutelako araudi berriari. Honetaz gainera, udala merkatuko eraikina berdiseinatzen dabil. Orain aste batzuk lizitazioa ateratu zuen ideia-proposamenen lehiaketa, eta datorren astean ekingo dio diseinu lanari. Neurri hauekin guztiarekin, udalak hornidura merkatua eta baserriaren merkatua biziberritzea gura du.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko urriaren 1a
19. urtea - 864. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Hile honetan hasiko dira Durangoko skate pista berria eraikitzen

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak skate pista berria egingo du Arripausuetan. Halantxik jakinarazi du ohar batean, eta aurreratu du hile honetan bertan hasiko direla pista berria eraikitzen. Gaur egungo pista "zaharkituta" geratu dela-eta, udalak instalazioa berritzea erabaki du. Proiektu berria instalazioa erabiltzen dutenekin elkarlanean landu dute eta aditua den kide bat arduratu da berau diseinatzeaz.

Durangoko Udalak azpimarratu du honako proiektu hau legegintzaldi hasieran markaturiko gobernu planaren neurrietariko bat dela.

Zornotzako Udalak enplegu plana indartu gura du

Zornotzako Udalak adierazi du herriko langabezia tasa murrizten ari dela apurka, eta gora egiten ari dela "udal enplegu-bulegoan kudeatutako lan eskaintzen kopurua". Bide horri jarraitzeko, Enplegu Plan Integrala indartu dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Hori diote adierazleek, gauzak onera egiten ari direla apurka-apurka. Zornotzako Udalak halantxik jakinarazi du. Herriko enplegua "ondo" ari dela berreskuratzen, eta antzera bateko aurreikuspena egin du datozen urte biei begira. "Hori erakusten dute azken datuek. Batetik, langabezia tasa murrizten ari delako apurka-apurka, eta, bestetik, udal enplegu-bulegoan kudeatutako lan eskaintzen kopuruak etengabe gora egin duelako", adierazi du Andoni Agirrebeitia alkateak. Dena dela, gogorarazi du krisialdi soziosanitarioak hemen jarraitzen duela eta oraingoz ezer ere ez dela ziurra. Hain zuzen ere, etorkizuna egungo ziurgabetasun egoera konpontzeko moduagaz eta munduko ekonomiak hartuko duen bideagaz egongo delako baldintzatuta. "Horregaitik, Zornotzako Udalak zuhur jokatu du eta gure herritarren enplegarritasuna hobetuko duten politikak lantzen jarraituko dugu", argitu du alkateak.

Bide horretan sakontzeko as-

moz, udalak Enplegu Plan Integrala indartzea erabaki du. 673.000 euro inbertituko ditu urtero-urtero. Udalari dagozkion arloetan zuzeneko kontratazioak egitea,

enpresei diru laguntzak ematea eta ekintzaitetasuna sustatzea dira aurrera begirako ildo nagusitariko batzuk. Bestalde, enplegarritasunari eta prestakuntzari

loturiko hainbat foro antolatuko dute aurrerago. Sinergiak landu gura dituzte udalerriko ekonomia eta enplegarritasuna hobetzen joateko.



Komertzioak Zornotzako Zezilia Gallartzagotia kalean.



Garaiko hainbat argazki, sasoi eta arlo diferenteetakoak.

Argazki zaharren bilketa asteburuan zehar Garain

Zapatuan eta domekan batuko dituzte irudiak, kultur etxean. Urri amaieran emanaldia egingo dute Elizaberrin

GARAI • EKAITZ HERRERA

Asteburu honetan, herriko bizimodua, ohiturak eta lekuak erakusten dituzten argazki zaharren bilketa egingo dute Garain. Etxean halakorik gordeta duenak kultur etxera jo beharko du zapatuan zein domekan. Zapatuan, goizean eta arratsaldean batuko dituzte irudiok, 11:00-14:00 eta 17:00-19:00 ordutegiagaz.

Domekan, goizean bakarrik, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Jasotako argazkiak digitalizatu egingo dituzte lehenengo. Eta, gero, urriaren 30ean, emanaldi berezia egingo dute Elizaberrin. 18:00etan izango da emanaldia. Egitasmoa Europako Ondarearen Jardunaldien barruan antolatu dute, Gerediaga elkarteak eta Garaiko Udalak.

Bizikleta mugikortasuna bultzatuko dute Zornotzan, 1.139.000 euro inbertituta

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Udalak 'Amorebieta-Etxano Bizikletaz 2022' plana garatzeari ekin dio, bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko asmoagaz. Planean aurreikusten den moduan, udalak bizikleta-bideak indartzea eta bide-segurtasuna hobetzea du helburu. Udalak honako lan hauek egitea aurreikusi du: gaur egungo seinalizazioa hobetzea;

bizikleta-sarearen segida eta konexio arazoak konpontzea; ingurumenaren aldetik baketsua den zona bat sortzea; erdiguneko perimetroa mugatzea, sartzeko ateak ipinita; lehenetik dauden bidegorriak eta interkonexioak seinalezatzea; eta oinezkoentzat eta txirrindularientzat ibilbide partekatuak sortzea.

Anartz Gandiaga hirigintza-zinegotziak adierazi du Zornotza-

ko Udalak "urteak" daramatzala proiektu honetan lanean, eta, behin eginda, proiektu horren osagarri izango diren beste jarduerak batzuk garatuko dituztela. Besteak beste, prestakuntza, herritarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa.

Plan hau izapideak gainditu eta gero sartuko dute indarrean. Sei hilabeteko epea izango du, eta 1.139.000 euroko inbertsioa.



Bizikleten aparkalekua Zornotzako erdigunean.

Elorriarrek aurrekontu parte hartzaileetako sei proiektutatik bat aukeratu dezakete

Urriaren 1etik 15era bitartean aurrekontu parte hartzaileetan iritzia emateko aukera dago



Idoia Buruaga alkatea eta María Herrero alkateordea prentsaurrekoan.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak martxan ipini ditu aurrekontu parte hartzaileak. Eguenean emandako prentsaurrekoan Idoia Buruaga alkatea eta María Herrero alkateordeak jakinarazi zuten, *Legegintzaldi Plana eguneratzeko* inkestako ekarpenen artean hautatzeko aukera izango dute elorriarrek, urriaren 1etik 15era bitartean. "Gobernu talde honentzat partaidetza prozesuak funtsezkoak eta lehentasunezkoak dira, eta, horregaitik, herritarrak botoa ematera animatu gura ditugu, Elorrio hobetzen jarraitzeko helburuagaz", adierazi zuen Idoia Buruagak.

Bestalde, María Herrero alkateordeak jakinarazi zuen Legegintzaldi Plana berregokitzeke egindako partaidetza prozesuko ideiak jaso dituztela aurrekontu parte hartzaileetan. "Inkestan, bes-

Aurrekontu parte hartzaileetan, 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu dezakete

te proiektu eta ideia batzuk emateko aukera ere eskaintzen da, eta proposamen horietariko batzuk, garrantzitsuenak, dira bozkatuko

direnak", azaldu du María Herrero alkateordeak.

Elorrioko Udalak 50.000 euro ipiniko ditu aurrekontu parte hartzaileetarako, eta 16 urtetik gorako elorriarrek honako sei proposamenetatik euren gustukoena aukeratu ahalko dute: naturbide sareagaz jarraitzea eta horretarako bide berri bat berreskuratzea, Arespakotxaga parkea txukuntzea, kultur arloko sormenerako diru laguntzak ematea, San Jose eremua txukuntzea, Esteibarlandako parkearen inguruan komunak ipintzea edo San Juan eta Elizalde kaleen arteko bidegurutzea hobetzea.

Borja Niso pianistaren kontzertua asteburuan Berrizen

Antezlanetarako eta nagusientzako kontzertuetarako sarrerak alde aurretik salduko dituzte, liburutegian

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Borja Niso pianistaren kontzertuagaz emango diote hasiera, asteburu honetan, Berrizko kultur programazioari. Zapatuan izango da kontzertua, urriak 2, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Kultur programazioak abenduaren 18ra arte iraungo du eta ez dira faltako antzerkia, zinema, musika eta dantza.

Musikari dagokionez, Raquel Lúa eta Aina Lanas, Club del Río eta Ede taldeen kontzertuak egongo dira, besteak beste. Bestalde, haur eta helduentzako antzerkiak eta dantza ikuskizunek ere badute lekua kultur programazioan, eta baita ere arte eszenikoetako MAX sarrietan sartu duten Kukai taldearen *Hmy Illa* lanak ere.

Horrez gainera, asteburu honetan zine emanaldiak ere hasiko dira, *Nora* filmagaz. Proiektatuko dituzten filmeen artean, *Maixabel* eta *Madres Paralelas* daude.

Borja Nisoren kontzertua urriaren 2an izango da, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean

Sarrerak alde aurretik

Antezlanetarako eta nagusientzako kontzertuetarako sarrerak alde aurretik salduko dituzte, ekitaldien asteen bertan, astelehenetik eguaztenera, liburutegian.

Zapatuan, urriak 2, Artzain Eguna ospatuko dute Atxondon, Axpen

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zapatuan, urriak 2, Artzain Egunaren beste edizio bat ospatuko dute Atxondon, Axpen. Egitaraua 11:00etan hasiko da, gazta lehiaketa eta ardi eta ahari erakusketa batez. Gero, 12:30ean, ardi-txakurren lehiaketa egongo da, eta baita ardi-mozte erakusketa ere. Eguerdian emango diote amaiera egitarauari, 13:30 inguruan, sari banaketagaz.

Antolatzaileak

Zapatuko Artzain Eguna Bizkaiko Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Elkarrekin antolatu du, Atxondoko Udalararen, Bizkaiko Foru Aldundiararen, Eusko Jaurlaritzaren eta beste hainbat erakunderen laguntzagaz.

Elizaldeko igerilekuetan 29.898 sarrera erregistratu dituzte aurten

"Iazko udagaz alderatuta, okupazioak nabarmen egin du gora", azaldu du Dani Palacios Elorrioko zinegotziak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak Elizaldeko igerilekuen denboraldiaren balantze positiboa egin du. "Egunetik egunera moldatu eta egokitu behar izan diren murrizketa eta mugak kontuan hartuta, modu positiboan baloratzen dugu Elizaldeko igerileku irekien udako kanpaina", esan dute udaletik. Elorrioko udal arduradunen esanetan, ekainaren 14tik irailaren 19ra bitartean 29.898 sarrera izan dituzte.

"Iazko udagaz alderatuta, okupazioak nabarmen egin du gora, eta sarbideen, abonatuena eta eguneko sarreren kopuruan islatu da hori. Egia da kopuru hori pandemiaren aurreko azken udan izandakoa baino txikiagoa dela, baina pozik gaude izan dugun joera positiboa ikusita", nabarmendu du Dani Palacios zinegotziak.

Horrez gainera, aurreko udagaz alderatuta, abonatuena kopurua ere igo egin dela azaldu dute, 1.169tik 1.756ra.



Atxondon lehiaketara aterako dute ludotekako kudeaketa

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak lehiaketa publikora aterako du ludotekako kudeaketa. Xabier Azkarate alkateak jakinarazi duenez, interesa dutenek urriaren 7ra arte izango dute aukera euren proiektuak udaletxean aurkezteko.

Azken urteotan, Marixurrieko kideak arduratu dira ludotekaren kudeaketaz Atxondon. Talde horretako arduradunek ANBOTOrri azaldu diotenez, lehiaketara aurkezteko asmoa dute. "Kudeaketa lehiaketara aterako zutela jakin genuen momentutik lanean gabilta proiektua aurkezteko", azaldu du taldeko

Alazne Alzuaranek. Xabier Azkarate alkateak argitu du ekainera arteko kudeaketa aterako dutela lehiaketara: "Ekainera arteko kudeaketa aterako dugu lehiaketara. Izan ere, gero proiektu bat dago ludotekako zerbitzua eskolako edifizio zaharrera eramateko".

Bestalde, eguaztenean, Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarte kideek argazkia atera zuten Marixurrikeri babes emateko. "Herriko elkarteak eta herria bizirik gura ditugu. Marixurrikeri gure babes adierazten diogu eta udalari ludoteka berehala zabalteko eskatzen diogu.



Ludoteka aurrean guraso eta ikasleek egindako elkarretaraztea.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

Itsasoan hondartuta hildako bale, izurde eta gehiagoren hezurak ikusgai Hontza museoan

Plentziako AMBAR elkarteagaz lankidetzan osatu dute erakusketa berria, eta ikasturte osoan ikusi daitezke Mañarian



Erakusketako arduradunak, eta, erdian, erakusketa berriko hezurak, bitrina banatan.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Hontza museoan erakusketa berri bat dago eta 2021-2022 ikasturte osoan bisitatu ahalko da. Itsasoko askotariko animalien hezurrek osaturiko erakusketa da. Museoko bitrina bitan erakusten dituzte. Animalia guztiak Kan-

tauri itsasoan hondartuta geratu ondoren hil ziren eta AMBAR elkarteak jaso zituen. AMBAR elkarteak 1988an sortu zen. Plentziako gobernu kanpoko erakunde bat da, zetazeoen eta bestelako animalia itsastarren ikerketa eta kontserbazioa xede dituen. Hondartuta

Besteak beste, itsas txakur grisaren eta dortoka espezie biren garezurak ikusi daitezke

geratutako animaliei nekrosia egin eta gero, euren hezurak gorde eta erakusketak antolatu izan dituzte Plentzian. Orain, Hontza museoagaz lankidetzan, hezur horietariko batzuk Mañarian ikusi daitezke.

Bitrina batean itsas txakur grisaren eta mazopa arruntaren hezur

batzuk eta honako hiru animalien garezurak daude: karearena eta laut dortoka espezieena, eta itsas txakur grisarena.

Baleen aho-bizarrak

Bigarren bitrinan, cuvier moko-balearen garezurra eta orno bat, eta zere txiki balea espeziearen orno bat eta hainbat aho-bizar dago. Balea espezie txiki honek —8-10 me-

Balea espezie batzuek beharrezko dituzte aho-bizarrak euren elikadurarako

tro inguruko luzera du— 250 bat bizar pare izaten ditu ahoan. Bere elikadurarako beharrezko tresna da, ez dauka haginik eta. Horrela, ura xurgatu eta berriro botatzen, elikagaiak —karramarroak eta abar— bizarretan tratatuta gertzen dira. Balea espezie handiagoa —25 bat metro— den zere arrunt baten aho bizarrak ere ikusgai daude erakusketan.

Pilotu-izurde hegaluzearen hezur batzuk ere badaude. Baleen moduko portaera badu ere, Delphinidae familian sailkatzen da, izurdeekin batera.

Otxandioko gimnasioan gela berria egiteko lanak esleitu dituzte

Aurretik eginda dagoen azpiegiturari gela berri bat gehituko diote, denetan handiena izango dena, eta taldeko ekintzak hartuko ditu behin atonduta dagoenean



Otxandioko gimnasioaren irudia.

OTXANDIO • J.D.

Mainondoko pilotaleku azpiko gimnasioan gela berri bat egiteko lanak esleitu ditu udalak 105.000 euroko aurrekontuagaz. Azpiegiturako aretorik handiena izango da eta taldekako ekintzak hartuko ditu, kirol ikastaroak eta abar. Une honetan, gela txikiago batek eta aldagelak osatzen dute gimnasioa. Gela berriak aurrekoa baino

Une honetan, aldagelak eta gela txikiago bat erabilgarri daude gimnasioan

bi-hiru bider handiagoa izango da. Etorkezuean, txartela duten herritarrek areto txikia gura dutenean erabiltzea da asmoa, eta areto handia, ostera, aurretik zehaztuta dauden ekintzetarako erabiltzea. Gimnasioa udalaren eta Mainondo kirol elkartearen artean kudeatzen dute.

Urritik aurrera, pilates saioetan parte hartzeko aukera dago Izurtzan

IZURTZA • J.D.

Udalak antolatuta, mantentze-gimnasia eta pilates saioetan parte hartzeko aukera dago urritik aurrera. Pilates klaseak nobedadea dira eta herritarren eskariei erantzunez antolatuko

Martitzenetan pilates klaseak eskainiko dituzte, eta eguenetan mantentze-gimnasiakoak

dituzte. Kasu bietan, arlo horretan aditua den abadiñar batek eskainiko ditu klaseak. Pilates saioak martitzenetan eskainiko dituzte, eta mantentze-gimnasiakoak eguenetan. Kasu bietan, 20:00etatik 21:00etara izango dira, Izurtzako erabilera anitzeko eraikinean. Izen-ematea udaletxera deituta egin daitezke.

Horregaz batera, Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak ere mantentze-gimnasiako klaseak eskaintzen hasiko da martitzenetan, 17:00etatik 18:00etara.

Mallabiko boulderra erabiltzeko, izena eman behar da urriaren 8a baino lehenago

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udalak boulder berri bat eraiki du eskalada praktikatzen, kultur etxearen eraikina dagoen azpialdeko gela batean. Berau erabili ahal izateko, aurretik izena eman beharra dago urriaren 8ra arte. Leku bitan eman daitezke izena: udaletxean 10:00etatik 14:00etara, eta kultur etxean 16:00etatik 19:00etara. Sei urtetik gorakoei bideratuta dago.

Herritarrek egindako eskarri erantzuten dio boulderrak,


Mallabiko udaletxean nahiz kultur etxean eman daitezke izena datozen eguenetan

bere sasoiaren udal arduradunek azaldu zuten. Eskaladarako entrenamendu desberdinak egiteko aukera eskaintzen du azpiegitura berriak. Hainbat zailtasun mailako guneak ditu.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Auzotarren eta AHTaren aurkako ekintzaileen protesta artean, Irazolako zubia eraitsi dute kamioiak errepidetik igaro ahal izateko

Bizilagunek hainbat bider egin dute protesta "segurtasun neurriak" eskatzeko lanetan; AHTko lanak direla-eta, kamioien joan-etorria "etenbakoa" da



Asteleheneko 08:00etan ziren zubia eraisten hasteko. Ordurako, hainbat bizilagun eta AHTaren aurkako ekintzaile bertaratu zen, eta lanak hainbat orduz atzeratu zituzten. Eguerdi aldera, Ertzaintzak banan-banan kanporatu zituen protestan parte hartu zutenak. Ekintzaileetariko bat zubiaren alboan eskegi zen, eta Ertzaintzaren Erreskate Unitatekoak bertaratu behar izan ziren pertsona hau kanporatzeko.

Abadiñoko Udalak bulego bat zabaldu du AHTko lanekin loturiko "zalantzak" argitzeko

Herritarren arreta zerbitzua
AHTko lanekin lotuta, Abadiño-ko Udalak AHTko obren jarraipena egiteko eta herritarrak informatzeko zerbitzua kontratatu du; Txanpota kultur etxean eskainiko dute zerbitzu hori, eta "obrekin erlazionaturiko zalantzei eta gorabeherei arreta orokorra emateko", telefono zenbaki bat eta email bat eskaini dituzte: 616378078 eta orodriguez@girder.es. Irailaren 27an zabaldu behar zituen atea.

Asteleheneko protestako argazki bat.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Irazolako zubi historikoa eraitsi eta gero, kamioiek libre dute inguruetan zehar joan-etorrian ibiltzeko. AHTaren Mendiolako lanetara joateko prestatu dute bidea. Azken asteetan, bizilagun batzuek hainbat bider eskatu

dute lan horiek "beharrezko segurtasun neurriekin" egitea. Auzotarrei "suposatzen diena" ere kontuan hartzeko eskatu dute, izan ere, auzoko bideak estuak izatera "zailtasunak izango dituzte bidean aurrera egiteko kamioiekin gurutzatuz gero".

Horrez gainera, auzotarrentzako alternatiba falta ere salatu dute. "Zubia bota eta gero, Tejeratik irten beharko dugu, San Antolin parean dagoen sarreratik. Oinez egin behar izanez gero, 620 metro egin behar ditugu errepidearen albotik inolako segurtasunik

barik eta batere argirik barik". EH Bilduk ere eskaera berdina egin du hainbat bider, kamioien joan-etorria "etenbakoa" eta "baimenik bakoa" delako. Aurretik, koalizio subiranistak hainbat bider salatu du auzotarrak errespetatzeko.

Iurretan Dantzari eta Askondo kaleak lotuko dituzte espazio berri batez

Lanak urrian hasiko dira eta udalak 47.000 euro lotu ditu horietarako. Gero, lan artistiko bat egingo dute bertan



Askondo eta Dantzari kaleen artean dagoen espazioa.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak Dantzari eta Askondo kaleak lotuko ditu espazio berri baten bitartez. Momentu honetan itxita dago espazio hori, "kale bien arteko lotura eragozten duen barruko patio degradatu batez", argitu dutenez. Lanak urrian hasita aurreikusitako udalak eta 47.000 euroko diru atala lotu du.

Dantzari eta Askondo lotuko dituen kalea berritzu eta egokitu gura dute, "hainbat elementuz hornituta, erabiltzeko erakargarriagoa izan dadin", udal arduradunek argitu dutenez. Horrela, igarobide-espazio gehiago lortu gura dute, inguruko oinezkoen segurtasuna hobetuz eta eremuaren irudiaren hobekuntza orokorra azpimarratuz, gaineratu dutenez. Lanek 135 metro koarduan eragingo dute eta material birziklagarriak erabiliko dituzte, ekonomia zirkularrean aurrera egiteko esperientzia pilotu moduan. Gero, lan artistiko bat ere egingo dute bertan.

Gerediagak Parkeko Hotelari eusteko eskatu dio udalari

Zaldibarko Udalean ordezkari duden alderdi politikoei eta Osakidetza txostenaren kopia bana bidali diete

ZALDIBAR • A.M.

Gerediagaren esanetan, Parkeko Hotela lez ezagutzen den eraikina mantendu egin beharko litzateke. Eskaera hori egiteko, txostena entregatu diote Zaldibarren udal ordezkari duden taldeei eta Osakidetza. Eraikina

mantentzeko eskaera egiteaz gainera, haren balioa "nabarmendu" beharko litzateke txostenaren arabera, "gaur egungo komunitateak eta etorkizuneko belaunaldiak hartaz gozatu dezaten. Eraikina zaldibartarren bizitzaren parte da".



Zaldibarko Parkeko Hotelaren irudia.

Metaleko greban auzipetutako Durangaldeko behargin biei babes adierazi diete elkarretaratzean

Gestamp eta Microdeco enpresetan lan egiten duten beharginak Bilboko Auzitegi probintzian epaituko dituzte



Astelehenean Abadiño Gestamp enpresaren aurrean eginiko kontzentrazioa.

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA
Microdeco eta Gestamp enpresetako langile bi Bilboko Auzitegi probintzian epaituko dituzte. Agintaritzaren aurkako atentatua leporatu eta Ertzaintzaren

akusazio partikularretik 23 hilabeteko espetxe zigorra eskatzen dutela eurentzat azaldu zuten sindikatuek astelehenean Gestamp enpresaren aurrean eginiko elkarretaratzean. "Gure babes

Metaleko hainbat langile auzipetuta dago 2019ko grebetan jaso zituzten salaketen ondorioz

osoa erakutsi gura diegu Aitorri eta Arkaitzi, argi utziz ez daudela bakarrik, eta sindikatu guztiak eta Bizkaiko metalgintzako langileak ere eurekin gaudela", azaldu zuten. Grebalariek deitu

zuten metaleko kontzentrazioa. ELLO, ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta CGT sindikatuekin batera, Microdeco eta Gestamp Bizkaia enpresetako langileen batzordeek mobilizazioagaz bat egin zutelara adierazi zuten.

"Gure babes osoa erakutsi gura diegu Aitorri eta Arkaitzi, argi utziz ez daudela bakarrik"

Metaleko hainbat langilek auzipetuta jarraitzen dute 2019an egindako grebetan jaso zituzten salaketen ondorioz. "2019ko amaieran metaleko hitzarmena sinatu zen, baina greba eguntan aktiboki parte hartu zuten langileek ondorioak jasaten jarraitzen dute", azaldu dute sindikatuek. Gaineratu dutenez, irailaren 16an Hego Uribeko-Arriatiako 3 langile pasatu ziren epaitegitik, eta 23tik 43 hilabetera arteko kartzela zigorra eskatzen dute eurentzat. "Hile hauek, isun ugari ordaindu behar izan da, eta metaleko lankideen aurka prozedura judizial eta penalak egon dira eta daude oraindino ere", diote sindikatuek.

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU

Matrikulazioa : Urriak 1etik 8ra arte



TRAÑA-MATIENA
ABADIÑO KO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10
ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino
@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goietza, 62
ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio
@haurreskolak.eus



EGUZKILORE
BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4
BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz
@haurreskolak.eus



INTXAURTI
MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea
MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia
@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2
MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g
AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta
@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7
ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo
@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA
IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5
IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta
@haurreskolak.eus



ZELAIETA
ABADIÑO KO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7
ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino
@haurreskolak.eus

Osakidetzak 106.686 txerto dosi ipini ditu Durangoko Landako Gunean



Landako Guneako argazkia.

DURANGALDEA • J.G.

Osakidetzak Bizkaiko txertaketa gune handiak zarratu ditu aste honetan. Azken hileetan Durangoko Landako Gunean martxan izan dena domekan itxi zuten. Osakidetzak emandako datuen arabera, 106.686 txerto dosi ipini dituzte bertan.

Apirilaren 3an ipini zituzten lehenengo txertoak Landako Gunean. Goizean ekin zioten txertoak ipintzeari. 62tik 65 urtera bitarteko pertsonak txertatu zituzten. Horren ondoren, adin tartea zabalduz joan zen, eta 12 urtetik gorako herritarrak ere txertatzen ibili dira bertan. Osakidetzak azaldu zuenez, Abadiño, Berriz, Zornotza, Elorrio, Iurreta, Zaldibar, Ondarroa eta Markiñako herritarrak zeuden deituta.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Gazteontzako politikak

1991. urtean jaio nintzen, Zuzenbidean lizentziatu nintzen lan duinaren esperantzan. Gutxira, sistema liberalaren krisia etorri zen eta horrek, prekarizazioa, etxebizitza arazoa eta lan baldintzen kaskartzea eragin zituen. Hala, ikasteko esan ziguten, graduak, masterrak, doktoretzak, zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta aukera gehiago gerora. Baina ez ikasketak ez beharrak ez dira gaur egun bizi baldintzen berme.

Jakina dugu Durangon etxebizitza bat alokatzea oso zaila dela, merkatuko eskaintza jendearen demandarekin alderatuz oso urria delako, eta, gainera, merkatuan dauden etxebizitzaren prezioak eskurazinak direlako.

Udaletik diru laguntza eta etxebizitza politika ezkertiarak ezartzea arazoaren konponbideetako bat izan daiteke, baina benetan egin beharkeoa gaia errotik hartu eta arazoa moztea da. Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren errenten prezioa mugatu beharko luke. Gainera, hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzeko laguntza eta programak martxan jarri beharko lituzke, eskaintza hasiz prezioek bera egingo bailukete.

Baina hau ez da guztia. Errenta ordaintzeko, lan baldintza duinak dituen lanpostu bat beharrezkoa litzateke. Gazteek eta hain gazteak ez garenok emantzipatu eta bizitza independentea egin ahal izateko, etxebizitza errenta merkaturatu erregulatzeaz gain, lan baldintza duinak bermatuko dituen sistema bat behar dugu, hau Eusko Jaurlaritzari dagokion eskumena izanik.

Noizko geroa garen gazteek kontuan hartuko gaituzten politika eta ekintzak?

Durangaldea asteen

Domekan artilleria hotsa kalean, Errebonbillo Eguna ospatzeko Elorrioren

Elorrio | Iazko etenaldiaren ondoren, Elorrioren Errebonbilloaren alardea egingo dute berriro. Hori horrela, domekan hainbat ekintza izango da: Errebonbilloaren goizaldeko alardea, 11:00etan nesken paleta-goma zirkuituko partida, 11:30ean abesbatzaren emanaldia, eta arratsaldean, 17:00etan, alardea eta euskal dantzak.

Iurretan, San Andres auzoko argiteria publikoa hobetzen hasi dira

Iurreta | Iurretako San Andres auzoan, argiteria publikoa hobetzen hasi dira, Led argiteria berria ipintzen. Udaletik jakinarazi dutenez, besteak beste 6 led farola ipiniko dituzte auzora sartzeko bidean. Inbertsioaren zenbatekoa 47.615 eurokoa da, eta hiru astetan gauzatzea aurreikusten dute.

Domekan mendi irteera egingo dute Andres Espinosa zornotzara gogoratzeko

Zornotza | Zornotzako Udalak Andres Espinosa mendizale zornotzara gogora ekarriko du beste urtebetetz, urriaren 3rako antolatatu duen mendi ibilbideagaz. Ibilbide nagusia 22,6 kilometrokoa da eta 8:00etan irteera dute, Jauregiarria parketik. Ibilbide laburra 6 kilometrokoa da eta familia giroan eta etxeko txikiekin egiteko modukoa da; 10:00etan irteera dute, Jauregiarrietatik baita ere.



Adinekoen Nazioarteko Eguna mendi ibilaldi batez ospatzeko dute Durangaldean

Durangaldea | Gaur, urriaren 1a, Adinekoen Nazioarteko Eguna da. Hori ospatzeko, Durangaldeko 14 Adinekoen Elkartek, Oneka eta Pentsiodunen Mugimenduak, Durangaldeko Mankomunitateak eta Durangoko Udalak mendi ibilaldi bat antolatu dute. "Mundu guztiari aukera ematea gura dugu. Horregaitik, ibilaldi ezberdinak antolatu ditugu", azaldu dute antolatzaileek. Ibilaldiek Traña-Matienan izango dute helmuga, gaur eguerdian. Ibilaldia amaitu eta gero, eurek idatzitako manifestu bateratua irakurriko dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

MIÑAN 1^o
Amets Arzallus & Ibahima Balde (Susa)

AITAREN ETXEA 2^o
Karmele Jaio (Elkar)

NOLA GORDE ERRAUTSA KOLKOAN 3^o
Miren Agur Meabe (Susa)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

MAKALLAU saltsan

saltsan
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao zozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperminak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: **688 773 205 / 688 734 329**

saltsan.com



DURANGO KULTUR HERRIA

Durango Kultur Aro 2021

URRIA

Urriak 2, zapatua

19:00 Señor Stetsen 'Cuerdo' zirku ikuskizuna San Agustin kulturgunean

Urriak 3, domeka

11:00 Errotari talde mikologikoaren XXII. Mikologia azoka Landako Gunean

11:00 Jolas eguna Murueta Torren

18:00 'Arineketan' Landako gunean

Urriak 9, zapatua

09:00 Marisatsa, XI. Nekazaritzako eta eskulangintzako produktuen erakusketa eta salmenta Andra Mariko elizpean

10:30 Eixu elkartearen artisau azoka Landako gunean

Urriak 10, domeka

19:00 Durangoko abesbatzak Andra Marian

Urriak 12, martitzena

10:00 Haurrentzako margo eta marrazki lehiaketa San Fauston

18:00 Batura zikloa, Josu Okiñenaren eta Liana Gourdjiaren kontzertua San Agustin kulturgunean

Urriak 13, eguaztena

17:00 Haurrentzako jolasak San Fauston

18:00 Vaiven zirkuaren 'Esencial' Landako Gunean

Urriak 15, barikua

19:00 'Suharra' dokumentala San Fausto gogoan zezenzale elkartearen eskutik Zugazan

20:00 Txin Txaun kolektiboaren 'Imbebible' San Agustin kulturgunean

22:30 Bertso saioa: Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita, Miren Amuriza, Sustrai Colina, Alaia Martin eta Unai Iturriaga. Gai jartzaillea: Ainhoa Urien Landako Gunean

Urriak 16, zapatua

17:00 Haurrentzako ikuskizuna San Fausto auzoan

18:00 37. zesta punta txapelketaren finala Ezkurdiko frontoian

20:00 La porteña Tangoren 'Alma de bohemio' Landako Gunean

Urriak 17, domeka

08:30 Mugarri eguna Andra Mariko elizpean

11:00 Nekazaritza azoka Andra Mariko elizpean

12:00 Haurrentzako margo eta marrazki lehiaketaren sari banaketa San Fauston

13:00 Tabira Musika Banda Landako Gunean

13:00 Durango Uria pintura lehiaketaren sari banaketa Ezkurdin

18:00 Pedras de Cartón konpainiaren 'Lázaro de Tormes' San Agustin kulturgunean

18:00 Euskal dantzak, Kriskitin dantza taldearen eskutik Landako Gunean

Urriak 21, eguena

19:00 Goitibera antzerki taldearen 'Kasilda, bukatzen ez den sua' San Agustin kulturgunean

20:00 'Los excursionistas' eta 'El paraguas' film laburren emanaldia San Agustin kulturgunean

Urriak 23, zapatua

19:00 Krego-Martin Danzaren 'Charadas' San Agustin kulturgunean

20:00 Silboberri txistu elkartearen kontzertua Landako Gunean

Urriak 24, domeka

18:00 Verdiniren 'Nire, zure, gure Verdini: 25 urte' Landako Gunean

Urriak 29, barikua

19:30 XI. Peter memoriala, Ezkurdin Jai Alain

22:00 Markeliñeren 'Andante' San Agustin kulturgunean

Urriak 30, zapatua

22:00 Izaro Landako Gunean

Urriak 31, domeka

12:00etan eta 17:00etan Ene Kantak, 'Liluragarria' Landako Gunean



Ardoaren eta garagardoaren azoka


2021ko urriaren 8tik 24ra

MAHATSONDOETAN BARRENA



Mahastien lurraldeak bisitatuz

DURANGO 

Montorreta industrialdea, 1 ST3 errepidea.



Zatoz gu ezagutzera

94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitetz.eus

Durango Kultur Aro 2021

19:00 'Wasted' antzezlana San Agustin kulturgunean

AZAROA

Azaroak 5, barikua

20:15 Valentin Larrea Yturberen lanak San Frantzisko elizan

22:00 Puro Relajo Landako Gunean

Azaroak 6, zapatua

18:00 L'Atelier dantza eskola Landako Gunean

Azaroak 7, domeka

18:00 Sugarri fanfarrea Landako Gunean

Azaroak 12, barikua

20:15 Pol Alvarezen kontzertua Andra Marian

22:00 Mikel Urdangarin Landako Gunean



Errotariren erakusketa.



Izaro.


clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako


{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RUGBY
TABERNA



Goienkalea, 18 DURANGO
Tel.: 946 200 007
www.durangorugby.eus



oierdi



Herriko Gudarien, 8
48200 - DURANGO (Bizkaia)
Tel: 94 612 98 24

 Oierdi Taberna  Oierdi Taberna

ZERO



0stegun, ostiral eta
larunbatetan afariak
Andra Maria plaza, 10
DURANGO

AHOLKULARITZA
PROFESIONALA

BERRIKUNTZAK DITUGU

**AZKEN BELAUNALDIKO PINTURETAN
PINTURA EKOLOGIKOETAN
ORBANEN KONTRAKO PINTURETAN**

TABIRA
COLOR




Eraikinen isolamendu termikoa
eta energia-efizientzia

**ZATOK GU BISITATZERA
ETA INFORMATZERA**

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO / Tel.: 946 217 911

leike aroztegia &
diseinua &

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

Krskitineko dantza talde guztiek irtengo dute plazara Landako Gunerako antolatu duten jaialdian

Hainbat hilean entsegurik barik egon direnez, dantzariak gogotsu hartu dute ikasturte berria. Krskitineko umeen, gazteen, helduen eta dantza eskolako ikasleen jaialdia izango da. Urriaren 17an Kultur Aro egitarauaren barruan ikuskizuna eskainiko dute Durangoko Landako Gunean, 18:00etan

DURANGO • JONE GUENETXEA

Krskitin dantza taldeak ekitaldi berezia prestatu du urriaren 16rako. Euskal dantzen jaialdia egingo dute Landako Gunean, eta Krskitineko talde guztiek partu hartuko dute bertan. Momentu honetan, Krskitin dantza taldeak ume eta gazteen lau talde ditu. Eta nagusien taldeaz gainera, dantza eskola ere badute. Ikasturteari ikuskizun batez ekitea da helburua. "Urtebete baino gehiago daramagu kalean dantzan egin barik. Ea indarra hartzen dugun. Urte hasiera oso gogorra izan da Abelen heriotzagaz", azaldu du Nagore Lozano dantzariak. Krskitinek jaialdia baliatuko du

Abel Iriondo dantzaria gogoan izateko. Elgoibarren sorturikoa izan arren, Iriondo Durangon bizi izan zen urte askoan eta

Nagore Lozano: "Gogorra izan da hile hauetan taldekideok dantzarako ezin elkartzea"

Durangoko dantza munduari esku loturiko kidea izan zen. Urte askoan Krskitin dantza taldean aritu zen eta Aiko erromeria taldean ibili zen.

Harrobiko gazteak

8tik 16 urtera arteko ume eta gazteak ere badabilta dantzan Krskitinen. Landako Guneko plazara irteten duten lehenengo aldia izango da hasiberrientzat. "Entseguekin nahikoa berandu hasi ginen, maiatzean edo horrela. Lokala, protokoloak... dena prestatu beharra zegoen", dio Lozanok.

Gaur umeen entseguak hasiko dira. "Gogorra izan da hile hauetan taldekideok dantzarako ezin elkartzea. Beldur ginen etenaldien ondoren jendeak taldea utziko ez ote zuen. Urte arraro honetan, denbora libre besterik ez baten pasatu dugu", dio Krskitineko kideak.

Dantza eskola

Adin batetik aurrera dantzan egiten ikasi gura dutenek ateak zabalik dituzte Krskitineko dan-

"Dantza eskolan asko disfrutatzen dute. Kirola eta dantza uztartzeko aukera izaten dute"

tza eskolan. Dantzarako gogoia baino ez da eskatzen parte hartzeko. "Gehienak emakumeak dira, 50 urte bueltakoak. Eureta-

riko batzuk orain arte ez dira aurtu plazan dantza egitera. Hiru talde ditugu. 50 bat lagun batzen dira merkatu plazan dantzan ikasteko. Eurretari asko dantzarien gurasoak dira, gehienak amak. Asko disfrutatzen dute. Kirola eta dantza uztartzeko aukera izaten dute. Asko gozaten dugu eurei irakasten", dio Lozanok. Lantzeko dantzak, zazpi jausi, polka.... Dantza egitean ondo pasatzea da dantza eskolaren helburu nagusia.

Landako Guneko jaialdirako prestaketekin hasi dira Krskitinen. Talde bakoitzak dantza bat edo bi egitea da asmoa. Ordu eta erdi inguruko ekitaldia izango da.

Pintura guztiak ez dira berdinak. Uno Zero.

Bakteriorik gabe • Lizunik gabe • Usainik gabe • Emisiorik gabe

MONTÓ
DURANGO MARGOAK
Askatasun Etorbidea, 9
DURANGO
Tel.: 946 40 88 20
www.durangomargoak.com

A-ALKI
Erreformatik eta dekorazioa

Bizitzeko espazioak sortzen ditugu.

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com
Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D · 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

RPS.: 57/16

OIZ
M.Z.O. ITURGINTZA
GASA BEROGAILUAK
ERAIKUNTZA S.L.

suministrosoiz@suministrosoiz.com
www.suministrosoiz.com

BILTEGIA
UAI Industriagunea, 2 C
48215 IURRETA
Tel.: 946 816 051

ERAKUSKETA DENDA
Plateruen Plaza, z/g.
48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693

SANEAMENDUA, LOZA, GASA, BEROGAILUAK, BAINUGELARAKO ALTZARIAK

NACEX

INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000

www.nacex.es

San Roke, 10-12 DURANGO
Tel.: 946 200 162
Mob.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es

D3 arquitectos

Durangon kokatutako arkitektura bulegoa, irisgarritasun eta energia-eraginkortasun irizpideak erabiliz eraikinen erosotasuna hobetzeko berriztatze eta birgaituntzan adituak.

Emitza hobereana lortzeko helburuarekin obra garapen osoan aholkatuz auzo komunitate eta partikularrekin lan zuzena.

Esperientzia zabala:

- Eraikin osoen birgaitzea.
- Fatxada zein teilatu energia birgaitzeak.
- Igogailu instalakuntzak zein irisgarritasun hobekuntzak.
- Txosten teknikoak (ITEak, EZEak, peritazioak...).
- Diru-laguntzak zein lizentzia tramitazioak.

Konpromisorik gabe kontsultatu.

Elkartegia. Landako 4. Durango
T. 94 681 23 11
info@d3arquitectos.com
www.d3arquitectos.com



Kriskitin dantza taldeko familia argazkia.

MESOI BARRIA
Tel.: 946 030 341

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

UNAI GARAY
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxe: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

1955an sortua
GALLASTEGI
harategiak

ZALDIBAR
Zalduasolo, 8. © 946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
© 946 812 247
www.gallastegiharategiak.eus

Bizitza zoragarria da
atseden hartuz gero.

Zure premiei erantzuteko prest izango gara:
bed's koltxoi - denda
Alluitz 1, Durango
T. 944 005 980

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

enpresa-bilera
ospakizunak
urtebetetze
jaunartze
bataio

DURANGON ORDUKAKO
TXOKO ALOKAIKUA

688 864 975
info@zuretxokoa.com

ZURE txokoa www.zuretxokoa.com

Komentukale 23 behe, 5. esk. - 48.200 Durango - BIZKAIA

AMALUR ASEGURUAK, S.L.
amalur.asegurua@agencia.axa.es
www.amalur.agenciaaxa.es

AXA DURANGO KURUTZIAGA
Kurutzia, 26 DURANGO
94 681 60 22 / 94 658 47 03
688 60 12 30

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxe: 946 215 404

izei

ETXE PERTSOLANIZATUAK,
NEURRIRA EGINDAKO
ALTZARIEKIN,
SARTU ETA LASAI
ESKATU AURREKONTUA.

Intxaurrondo 10, Durango
Tel.: 94 681 59 94
decoradores@izeidecoracion.com

Durango Udalak Kultur Aro ekitaldi sorta antolatu du, urrian ere kulturaz gozatu ahal izateko

Dozenaka ekitaldi antolatu dute Kultur Aro programaren barruan; asteburuan zirkua eta azoka egongo dituzte, adibidez



'Cuerdo' zirku ikuskizuna.

DURANGO • A.M.

Bigarren urtez ez da San Fausto jairik ospatuko Durangon. Horren ordez, Durango Udalak Kultur Aro ekitaldi sorta antolatu du herriko beste hainbat eragilegaz elkarlanean. Irailean hasita, urrian ere dozenaka ekitaldi egingo dute durangarrentzat hain garrantzitsuak diren egunak betetzeko. Asteburu honetan, mikologia azoka

Mugarri Eguna eta Durango Uria pintura lehiaketa egingo dira urriaren 17an.

Urriaren 9an, azokak izango dira protagonista. Andra Mari-ko elizpean nekazaritzako eta eskulangintzako produktuak egongo dira Marisatsaren XI. azokan; Landako Gunean, Eixu elkartearen artisau azoka egongo da. Egun bat geroago, domekan, Durango abesbatzek kontzertua eskainiko dute, 19:00etan, Andra Marian. Urriaren 15ean, antzerkia eta bertsoak izango dira protagonista; Txin txau kolektiboak *Imbebible* antzezlanaren eskainiko du, eta 22:30ean puntako bertso saioa egongo da Landako Gunean.

Urriaren 15erako, 'Imbebible' antzezlanaren eta bertso saioa daude antolatuta

eta zirkua egongo dira, besteak beste. Bestalde, Landako Gunean *Arinetan* emanaldia egongo da. Musika eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna da hau. Iñar Sastre eta Jagoba Astiazaran musikariek Haatik dantza taldeagaz elkarlanean sortu dute pieza hau. Ainara Ortegak, Xabi Zeberio eta Agate Amilibiak lagunduko diete taula gainean.

Urteroko ekitaldiak

Jairik egon ez arren, ahal den neurrian data hauetan egiten diren ekitaldiei eusten ahalegindu dira elkarteak. Horrela, Mugarri Eguna, haurrentzako margo eta marrazki lehiaketaren eta Durango Uria pintura lehiaketaren sari banaketak egingo dituzte urriaren 17an. Zesta punta txapelketako finalak ere jokatuko dituzte.

22 ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZA BERRIA

**BIGARREN FASEKO
AZKEN ETXEBIZITZAK SALGAI,
HIRUGARREN FASEA
2022. URTEAN HASIKO DUGU.
DEITU INFORMAZIOA JASOTZEKO.**



ERTZAIN ETXEAREN ONDOKO BIRIBILGUNEAREN
ALBOAN. KURUTZIAGA ONDOAN, DURANGON.



**94 681 44 95
650 397 007**

Errotarik XXII. Mikologia Azoka antolatu du domekarako Landakon

Zapatuan perretxikoak bilduko dituzte. Taldeko adituek sailkapena egin eta gero, domekan erakusketa prestatuko dute 11:00etatik 14:00etara



Orain urte bi Landako Gunean antolaturiko azoka mikologikoa.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Iazko etenaren ondoren, Errotari talde mikologikoa XXII. Mikologia Azoka antolatu du domekarako, urriak 3, Landako Gunean. Onddo eta perretxikoak erakusgai ipintzeko, baina, aurretik bilketa egin beharra dago. Elkarteko kideak

zapatuan joango dira basora, bilketa egitera. "Aurten ezin gara denok batera joan. Bakoitza bere aldetik joango da", azaldu du Joseba Ortiz de Zarate Errotariko kideak. Izan ere, bizi dugun egoera dela-eta, taldean beharrean nor bere aldetik joango da. Hori bai, eguerdian,

13:00etan, hitzordua ipini dute Landako Gunean. Baturiko guztia bertan jasoko dute. Hortxe hasiko da hurrengo fasea, sailkatzearena. Elkarteko adituek jasoriko perretxikoak motaren arabera sailkatzen dituzte eta erakusmahaietan ipintzen dituzte.

Aurreko urteetan, Errotari-koek erakusketarako ipinitako tabernan perretxikoekin osaturiko pintxoak egiten zituzten. Aurten, hori ere ez da posible izango.

Erakusketako postuak

Sailkapena egiteko lana uste bai-

no handiagoa izaten da. Esteban Ruiz Errotariko presidentek dioenez, batzuetan 22:00-23:00 ingurura arte egoten dira lan hori egiten. Erakusketak mikologiaren inguruan ikasteko balio du. "Ezagutzen dituzun perretxikoak zeintzuk diren jakin eta berriak ezagutzeko aukera izaten da", dio Ruizek. Deneriko perretxiko eta onddoak izaten dituzte. "Garrantzitsua da toxikoak zeintzuk diren jakitea. Horregaitik, denerikoak ipintzen ditugu", argitu du. Edozelan ere, mendian edo basoan perretxiko ezagunak baino ez batzeko gomendioa egiten dute Errotari elkartekoek.

Zaletasun handia

Mikologiak geroago eta zale gehiago ditu. Sasoiak heltzen denean, baso eta mendietan geroago eta jende gehiago ikusten da perretxikotan. "Lehen baino jende gehiago ikusten da, eta ez COVIDaren osteko sasoi delako. Aurretik ere zaletasuna hazten zebilen", dio Errotariko presidentek.

Perretxiko sasoiak gura baino sikuago hasi dela nabarmendu dute elkarteko kideek. "Uztailen euri gutxi egin zuen. Hego-haizeak ere ez du lagundu, lurraren goiko aldea sikatzen du eta. Ea euri apur batez geroago irtetzen duen", azaldu du Ruizek.

Arriaundi Industrialdea P1
48215 IURRETA Bizkaia
Tel. 946 818 381
estacionservicio@arribide.com

www.arribide.com

AGIRREZABAL
ELEKTROTRESNAK

agirrezabal.e@hotmail.com

J.A. Abasolo, 10 Tel. 94 620 22 84
48200 Durango Fax 94 620 22 84

FATXADA ETA PATIOEN BIRGAITZEAK
TEILATUEN MANTENIMENDUA
BIZI BIDEAK (LÍNEAS DE VIDA)
LEHIOEN GARBIKETAK

BIZKAIA / NAFARROA
722 345 215 / 616 413 660
info@anelan.pro

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

MARKIEGI
ELEKTRIZITATEA ETA ARGIZTAPENA
Tabira 3, 48200 Durango

e-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com
946 203 520

“Beti da berezia kontzertu bat ematea, eta Durangon bada, oraindino bereziagoa”

Bederatzi urtean Durangoko Orfeoiko presidente izan eta gero, Arrate Bañeresek kargua utziko du datorren astean



Arrate Bañeres De La Torre
Durangoko orfeoia
DURANGO | 1962

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Urriaren 10ean, Durangoko abesbatzek, Begi Argiak, Doinu Zaharrek eta Durangoko Orfeoia kontzertua eskainiko dute Andra Marian. Arrate Bañeres Durangoko Orfeoiko presidentea azaldu duenez, "oso gogotsu" daude. "Guretzat beti da

berezia Durangon abestu ahal izatea", esan du.

Zelan dago taldea?

Taldea animatuta dago. Gure kontzertua Kultur Aoren egitarauaren barruan izango da eta Durangoko Orfeoiko oso gogotsu gaude

urriaren 10eko kontzertu horretarako. Durangoko Udalak kontzertua ematea proposatu zigun eta baietz esan genion. Pandemia hasi zenetik udala guri laguntzeko prest egon da, eta oso eskertuta gaude.

Berezia da zuentzat Durangon kontzertua ematea?

Behin, norbaitek esan zidan Durangoko Orfeoia Durangoko ondarea zela, eta esaldi hori neuretzat hartu nuen. Gu Durangoko ondare gara. Orfeoia ia 140 urte ditu, eta, guk dakigula, Estatuko bigarren kororik zaharrena gara.

Guretzat beti da berezia kontzertu bat ematea, eta Durangon bada, oraindino eta bereziagoa izaten da. Gure kontzertuak entzutera etortzen direnak oso orfeoizaleak dira.

Maiatzean elkarretaratzek egin zenituzten, zuen jarduerak berriro berreskuratzen uzteko eskatzeko.

Maiatzean kalera irtetea erabaki genuen. Pandemia dela-eta, arlo guztietan apurka-apurka dena "normaltasunera" bueltatzen hasi zen. Baina guk entseatu ezinik jarraitzen genuen. Orduan, Euskal Herriko konfederaziotik zerbait egitea proposatu zuten, kultura segurua zela aldarrikatzeko. Hasieran, Bizkaiko koro guztiak Bilbon elkartzea zen asmoa, baina pandemiaren ondorioz eskualdeka batzea proposatu ziguten eta guk Durangon egin genuen mobilizazioa, Ezkurdin.

Mobilizazio horren ondoren, kontua zertxobait hobetu zen, baina gero, bosgarren olatuagaz batera, berriro beste neurri batzuk ipini zizkiguten. Eta hainbat hilabete pasatu ditugu horrela.

Zelan zaudete orain? Zelan konponetzen zarete entseguak egiteko?

Hasieran, arazotxo batzuk izan genituen gure entsegu lokalean. Lokaleko leihoak ezin ziren zabaltu; beraz, ezinezkoa zen lokala aireztatzea. Gainera, lokala aireztatzeko sistema ez zebilen oso ondo, eta hori konpontzea ezinbestekoa zen.

Lan dezente egin behar den arren, niretzat plazera izan da Durangoko Orfeoiko presidentea izatea

Konponketa horiek guztiak egin zituzten, eta dagoeneko hasi gara entsegu lokalera etortzen. Hala ere, lokalean aforo mugatua dago, eta ezin dugu denok batera bertan entseatu. Martitzenetan talde txikitik batzen gara. Alde batetik, tenoreak batzen dira; bestetik, baxuak, eta beste gela batean sopranoak. Kontraltoak ere aparte batzen gara. Hala ere, kontzertu bat ematerako orduan ezinbestekoa izaten da denok batera entseatzeko, Beraz, eguenetan denok batzen gara, zuzendariagaz batera. Entsegu horiek San Agustin Kulturgunean egiten ditugu. Hori guzti hori Durangoko Udalaris esker da.

Zelan eraman duzue pandemia?

Mundu guztiaren moduan. Hasieran ez genuen sinesten. Gero, ardurua handia izan genuen, eta, azkeneko, kontua mugitzen hastea gura genuen, normaltasun batera bueltatzen hastea. Guretzat unerik txarrenak kontzertuak antolatzerako

Zoladurak
Oholtzak
Leihoak
Ateak
Armairua
Eguzki-babesa
Gortinak
Alfonbrak



APAINKETAK ROYUELA
BERNIZADURAK-LEUNKETAK

Jokatu zure espazioekin modu xume eta pertsonalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz



KÖMMERLING®
Sistemas de ventanas

LOTERIAK PRENTSA **barik**

IKERFER

Ermodo, 25 behea
Durango
Tel.: 946 810 566

ESKOLA MATERIALA - ARTE EDERRAK - ILUSTRAZIOA - KALIGRAFIA - BULEGO MATERIALA

Folder DURANGO

2006-tik zurekin batera sortzen

DESGUACES PILASTRA

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketak
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079
Osagarrien salmenta: 946 201 787
e-mail: desguacespilastra@gmail.com
Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

koan izan dira. Hainbat eztabaida izan dugu gure artean, kontzertuak egin, ez egin. Gero, gainera, kontzertuak antolatu eta azken orduko neurriengaitik bertan behera ere utzi behar izan ditugu. Dena errusiar mendi baten modukoa izan da, zoratzeko modukoa.

Bederatzi urtean Durangoko Orfeoiko presidente izan eta gero, kargua utziko duzu. Zer suposatzen du zuretzat?

Niretzat ohorea izan da Durangoko Orfeoiko presidentea izatea, talde hau ordezkatzeko eta juntakideekin batera bederatzi urte hauetan lanean aritzea. Hasieran, kargua lau urterako hartzea izan zen asmoa, eta gero beste bati erreleboa ematea. Baina junta aldatu eta presidentzia hartu genuenean, estatutuak aldatzen hasi ginen. Ikusi genuen orfeoia Madrilen erregistratuta zegoela, eta Euskal Herrira ekartzea erabaki genuen.

Prozesua oso luzea izan zen. Gainera, jendea ez zen animatzen juntan sartzera, eta, beraz, presidentzia kargua beste lau urtez luzatzea erabaki genuen. Horren ondoren, pandemia etorri zen, ezin izan genuen batzarrik egin eta, azkenean, bederatzi urte egin ditut kargu honetan.

Azkenik, datorren astean egingo dugun batzarrean itxiko dut zirkulu polit hau. Nigaz batera



Durangoko Orfeoiko kideak kontzertu batean.

diruzainak eta batzordekide batek ere utziko dute kargua.

Zer esango zenieke postu horietan sartuko direnei?

Lan dezente egin behar den arren, niretzat plazera izan dela Durangoko Orfeoiko presidentea izatea. Aitortu behar dut alde batetik pena ematen didala kargua uzteak, baina, nire ustez, denok

pasatu beharko ginatke postu horietatik. Dena dela, ez diot inori beldurrik sartu gura, baina ezta karguari meriturik kendu gura ere. Lan egin behar da, baina lan polita da. Bestalde, esan beharra daukat zenbait juntagaz lan egitea egokitu zaidala eta oso jende ona topatu dudala. Lan egiteko talde bikainak izan ditut eta oso

eskertuta nago, bidea asko erraztu didate eta. Gainera, seguru nago etorriko direnak ere oso langileak izango direla.

Beste ezer gehitu gura zenuke?

Bai. Durangoko Orfeoira batzeko deia egingo nioke jendeari. Abesteak asko laguntzen du, osasunerako ona da eta, gainera, oso ondo pasatzen dugu.

Familia bat gara, eta, beraz, horixe, herritarrei Durangoko Orfeoira batzeko deia egingo nieke.

Egia esan, apurka-apurka jende berria batzen dabil eta hori pozgarria da guretzat. Baina oraindino ezin dugu esan be-launaldi aldaketa bat gertatzen dabilenik Durangoko Orfeoian.

HEMENDIK

ELORRIORA

BETI GERTU!

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, behea 48215, lurreta
construcciones@zarateyelexpe.com

Bertsolari txapelketa

BERTSOAK DURANGO :: Urriak 3



Bizkaiko Bertsolari Txapelketa hasiko da Durangon

Domekan, urriak 3, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa hasiko da. Lehenengo kanporaketa Durangon jokatu da. Sei bertsolari arituko dira San Agustin kultur-gunean, 17:00etan egingo den saioan: Ander Elortegi, Asier Galarza, Beñat Bilbao, Ibon Aju-riagogeaskoa, Inazio Vidal eta Garaiko Iruri Altzerreka. Leire

Garratxena Larrabe izango dute gai jartzaile.

Saioko irabazlea zuzenean sailkatuko da finalurrekoetara, eta besteek, puntuazioaren arabera edukiko dute horretarako aukera. Guztira, sei kanporaketa, hiru finalurreko eta finala izango ditu txapelketak. Sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eus atarian.

Urriaren 1ean

IURRETA antzerkia

'Miss Spein' (Aroa Blanco eta Aitor Arabiourrutia), 19:00etan, Askondon.
Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Gorka Pagonabarrena, Erika Lagoma, Jone Uria eta Jon Maia, 20:00etan, Aita San Migel plazan. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

DURANGO aurkezpena

Wikiemakumeok taldearen aurkezpena, 18:00etan, Andragunean. Hizlariak: Mentxu Ramilo eta Marisa Barrena.

ZALDIBAR ipuinak

'Amona Joxeparen istorioak' ipuin kontaketa saioa, Udal Liburutegian. Izena eman behar da.

Urriaren 2an

BERRIZ musika

Tributo a Ludovico Einaudi (Borja Niso), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia

'Cuerdo' (Señor Stets-Danimarka), 19:00etan, San Agustin kultur-gunean.

IURRETA musika

Mikel eta Esti Markez, 18:00etan, Aita San Migel plazan.

Addar eta Leihotikan

21:00etan.

GARAI deialdia

Herriko bizimodu, ohitura eta lekuen argazki zaharrak batzeko deialdia. Urriaren 2an, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era, Kultur Etxean. Urriaren 3an ere batuko dituzte, goizean bakarrik.

MAÑARIA maratonia

Haurren Minbiziaren Aurkako Elkartasun Maratoia: Pilota partidua: Mañaria-Eibar, 12:00etan, frontoian.
Zugame ipuin musikatuak, 17:00etan.
Kontzertuak: Artaburuak, 18:00etan.
Sugoi, 19:30ean.
Saskiaren zozketa, 20:00etan.

ZORNOTZA antzerkia

'Perez sagutxo' (Glu Glu konpainia), 12:30ean, Zornotza Aretoan. Bigarren emanaldi bat ere egingo dute, 18:00etan.

Urriaren 3an

DURANGO azoka

XXII. Mikologia Azoka, 11:00etatik 14:00etara, Landako Gunean.

XXI. Mikologia Argazki

Lehiaketa ere egingo dute. **Jolas Eguna**, 11:00etan, Murueta Torre auzunean (euria eginez gero, Landako Gunean).

DURANGO musika

'Arineketan' musika, kanta eta dantza ikuskizuna: Ines Sastre (pianoa), Jagoba Astiazaran (txistua), Ainara Ortega (abeslaria) eta Haatik dantza taldea, 18:00etan, Landako Gunean.

ELORRIO errebonbilloak

Errenbilloen kalejira, 17:00etan, herriko kaleetan zehar.
Nesken paleta gomako zirkuituko partidua, 11:00etan, frontoian.
Basilikako Abesbatzaren emanaldia, 11:30ean.
Alardeak eta Euskal Dantzak, 17:00etan, plazan.

IURRETA pailazoak

Iurretako dantzarien erakustaldia 12:45ean, Aita San Migel plazan.
Pirritx, Porrotx eta Marimotots, 17:00etan.

ZORNOTZA irteera

'Andres Espinosa gogoratzen' mendi irteera, 08:00etan, Jauregibarria parketik irtenda. Ibilbide laburra egiteko, 10:00etan.

Urriaren 5ean

ZORNOTZA zinekluba

'Mandibulas' pelikula, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 7an

IURRETA tonbola

Bingo tonbola, 18:00etan, Askondon.
Iñaki Uribesalgo soinu-jolearen emanaldia, 19:30ean.

Urriaren 8an

ELORRIO antzerkia

'Celestina, la tragicomedia' (Atalaya konpainia), 19:00etan, Arriola antzokian.

Urriaren 30era bitartean

BERRIZ lehiaketa

Berrizko XXIII. Argazki Lehiaketa. Berrizko herriagaz erlazio-natutako kontuak islatzen dituzten argazkiekin parte hartu daiteke lehiaketan: bizitza eta ohiturak, jaiak, kirola, arkitektura, kultura... Argazkiak jatorrizkoak eta argitaratu bakoak izan behar dira. Izena emateko azken eguna, urriaren 30a. Lehiaketaren oinarriak www.berriz.eus atarian.

Urriaren zehar

DURANGO erakusketa

'Giza-mapa' argazki instalazioa (Txelu Angoitia), Arte eta Historia musean.

Zinema

:: Abadiño

ERROTA KULTUR ETXEA

• Chavalas

zapatua 2: 19:00

• 4 chicos y "Esto"

domeka 3: 17:00

:: Durango

ZUGAZA

• 007. Sin tiempo para morir

barikua 1: 19:00/21:30

zapatua 2: 18:00/21:30

domeka 3: 16:30/19:00

astelehena 4: 19:00

martitzena 5: 19:00

eguzatena 6: 19:00

• Mediterráneo

barikua 1: 19:00/22:00

zapatua 2: 17:30/19:45/22:00

domeka 3: 17:30/19:30

astelehena 4: 18:00/20:15

martitzena 5: 18:00/20:15

eguzatena 6: 18:00/20:15

• Benedetta

barikua 1: 19:30/22:00

zapatua 2: 19:30/22:00

domeka 3: 19:30

astelehena 4: 19:00

martitzena 5: 19:00

eguzatena 6: 19:00

• Bella y el circo mágico

zapatua 2: 17:30

domeka 3: 12:00/17:00

• Oin Handiren senea

domeka 3: 12:00

:: Elorrio ARRIOLA

• Film Sozialak zinema ikusezinenaren Bilboko jaialdia

zapatua 2: 20:00

domeka 3: 20:00

astelehena 4: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• Chavalas

barikua 1: 20:00

domeka 3: 20:00

astelehena 4: 20:00

• D'Ortagnan eta hiru

Mosketxakurrak

domeka 3: 17:00

UDAKO 7. ARGAZKI LEHIAKETAKO irabazleak



**DURANGALDEKO
argazkirik onena**

Epaimahaiaren
saria

Maria Bizkarra

1



2

Boto
bidezko
sariduna

Asier Aspuru

**Durangaldetik
KANPOKO
argazkirik onena**



3

Epaimahaiaren
saria

Asier Arteaga



4

Boto bidezko
sariduna
Oihane Ibarrondo

"'Miss Spein' pentsatzea eragiten duen obra dela esan digute, eta hori oso polita dela iruditzen zaigu"

Gaur, urriak 1, Aroa Blanco aktoreak eta Aitor Arabiourrutia zuzendariak 'Miss Spein' obra aurkeztuko dute lurretan; Askondon izango da, 19:00etan



kideek bestelako irakaspenak ere eduki dituzte. "Prozesu aberatsa izan da guretzat. Pieza bat sortzen ikasi dugu, baita mugitzen ere. Ez da erraza, atzetik inoren babesu eduki barik piezak mugitzea, baina hori ere ikasi behar izan dugu", dio Arabiourrutia. Iurretakoaz gainera, beste bost emanaldi dituzte lotuta, eta pozik daude orain arte edukitako harreragaz. "Ez genekien zelan funtzionatuko zuen, konpainia gaztea garelako", gaineratu du. Hala ere, zailtasunak ere eduki dituzte prozesuan. "Geuk egin dugu dena, askotan

'Miss Spein' euskaratu eta gero, urrian entseguekin hasteko asmoa dute

gure beste lanpostuetan zortzi ordu igaro eta gero", azaldu du Arabiourrutia. "Pandemiak asko zaildu du guztia, baina ahal izan dugun moduan konpondu gara, Internet bidezko batzarrak eginda eta abar. Esango nuke entseatzeko lekua topatzea izan dela zailtasunik handiena. Hainbat gunetan tokia egin digute, industria-nabe okupatu batean edo San Agustin kulturgunean, besteak beste", azaldu du zuzendariak.

Euskarazko entseguak

Las Paralelas antzerki konpainiaren hurrengo erronka *Miss Spein* euskaratzea izaten ari da. Blancoren esanetan, testua prest dute, eta urrian entseguekin hastea aurreikusten dute. "Pieza bera hizkuntza bitan edukitzea ondo dator beti. Obra bera oso moldagarria da, eta euskaraz eta gaztelaniaz egiterakoan, are moldagarriagoa izango da", azaldu du gogotsu Blancok.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Miren Argi modelo da *Miss Spein* antzezlaneko protagonista. Miss World lehiaketara aurkeztu da, irabazteko asmoagaz, eta horretarako gai ikusten du bere burua, gainera. Feminista eta animalista ere bada. Lehiakideak ez datozela ikusita, publikoagaz solasteari ekiten dio. "Hor hasten da nahaspila, bere kontzeptu teorikoak eta errealitatea ez doazelako batera. Edertasunaren kanonak feminismitik defendatzeko gai da Miren Argi; inoiz deseraiki ez den emakume bat da bera", azaldu du Aroa Blanco aktore durangarrak. Bera sartzen da

modeloaren azalean. "Oso prozesu polita izan da pertsonaia aurkitzea, oso ondo pasatu dugu", gaineratu du. Aitor Arabiourrutia egin ditu zuzendari lanak.

Abiapuntu horregaz, Las Paralelas antzerki konpainiak umore azidoz beteriko 50 minutuko antzezlan aurkeztu du. "Feminismoa ikur hartuta, hainbat gai azaltzen ari dira jendaurrean. Guk horiek umoretik lantzen ditugu", adierazi du Arabiourrutia. "Ideia orain hiru bat urte izan nuen, baina pandemiaren kontuagaz berreskuratzea erabaki nuen", gogoratu du Blancok. Gero, zuzeneko aurkezpenak

etorri dira, "espero baino gehiago", gehitu dute biek ala biek. "Oso

"Feminismoa ikur hartuta, hainbat gai azaltzen ari dira jendaurrean. Guk horiek umoretik lantzen ditugu"

pozik gaude eukitako harreragaz", esan dute. Besteak beste, Abadiñon ere egon dira *Miss Spein* aurkezten. "Taularen gainean, pertsonaiak pertsona askoren isla dira, eta ho-

Aroa Blanco da Miren Argi miss hautagaia.

rrek askatasun bat ematen dizu", azaldu du Aroa Blancok. Arabiourrutia zuzendariak publikoaren parte-hartzea ere nabarmendu du: "Miren Argik publikoari zuzenean berba egiten dio, interakzio hori behar-beharrezkoa du, eta jendeak ondo erantzun du orokorrean. Pentsatzea eragiten duen antzezlan dela esan digute, eta hori oso polita dela iruditzen zaigu".

Irakaspena

Prozesuari dagokionez, Blanco eta Arabiourrutia pozik daude. Sorkuntza prozesuan gozatzeaz gainera, Las Paralelas konpainiako



JANTZARI

Tradizioa eta parekidetasuna

FILMIN

plataforman ikusgai!

www.jantzari.eus

bideografik



anboto

Iurreta Euzko Lehiaketa Udala

Bizkaia

Smurfit Kappa



ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

GAURSA

“Hau ez zen posible izango Sorginolak musika lokal bat atondu izan ez balu”

Animaliek talde durangarraren 'G-172' lan laburra entzungai dago musika plataforma digitaletan; lau kantak osatzen dute

MUSIKA • A.M.

Haritzek, Gorkik, Agerrek, Peiok, Andonik eta Corralek osatzen dute taldea.

Nortzuk zarete Animaliek? Noiztik zaudete martxan?

Musikaz disfrutatzeko asmoz elkartutako lagun talde bat da Animaliek. 2019ko 40 Minutu Rock jaialdian sortu zen, 2020ko ekainaren 1era arte entseatzeko aukerarik eduki ez gunden arren, pandemiaren erruz. Gure artean kantak jo eta hauetaz disfrutatzeko asmoagaz sortu zen taldea, baina apurka gure kantak sortzen ausartu gara eta orain bide horretatik segitzeko asmoa dugu.

Lehenengo maketa hau Sorginolan grabatu duzue. Nogaz? Zelako esperientzia izan da?

Maketa horren sorrera nahiko bapatekoa izan zen. Entsegu baten amaieran, Parkatu taldeko kideek [Durangoko beste talde bat] euren hurrengo entsegua grabatzeko asmoa zutela esan ziguten; aukera baliatu gunden gure kantak ere grabatzeko. Nahiko grabazio eroso eta arina izan zen; azken finean,

lagun artean mila bider errepikatutako kantak jotzen aritu ginen. Hasieran, grabazioa guretzat gordezta pentsatu genuen. Guztiz ondo ez entzuteaz gainera, hainbat akats dagoela onartu beharra dago. Baina gero pentsatu genuen aukera ona zela plataforma musikalak estrenatzeko, eta baita gure kontzertuetara zetozenek gu ezagutzeko ere.

“Nori ez zaio gustatzen kotxean joan eta bere kantak entzuteko aukera edukitzea?”

Nori ez zaio gustatzen kotxean joan eta bere kantak entzuteko aukera edukitzea?

Zelan definituko zenukete zuen musika?

Gure musika definitzeko modurik onena horixe da: 'gure musika'. Azken finean, gu ez gara profesionalak, eta ez goaz musika estilo edo soinu mota konkretu baten bila; momentuan irteten zaiguna jotzen dugu, eta horren arabera ateratzen



dira kantak. Izan ere, hasieran kanta askotarako estilo bat pentsatuta dugun arren, guztiz desberdinak izaten amaitu dute, gure animoaren arabera.

Pandemia egoeran kontzertu batzuk eskaintzeko aukera izan duzue. Zelan joan dira?

Oso ondo hasi ginen, baina ezin okerrago amaitu genuen. Jo ditugun kontzertuak oso ondo irten dira; azken finean, oholtzara igoztean asko harrotzen garen taldea gara, eta horrek eragina du publikoaren jarreraren. Baina oso kon-

tzertu gutxi jotzeko aukera izan dugu. Uda arraro honetan zehar, bost kontzertu eduki ditugu planteatuta, eta horietatik bakarra jo ahal izan dugu, azken momentuan udalak atzera bota duelako gazteek antolaturiko programa, edo antolatu dutenei eskaini zaizkien baliabideak oso murrizak izan direlako. Beste kontzertu bi lotu ditugu, eta baikor gaude. Ea oraingoan behintzat jotzeko eta dena emateko aukera dugun.

Zerbait gehitu gura duzue?

Esan beharra dugu hau guzti hau

ez zela posible izango Durangoko Sorginola gaztetxeak musika lokal bat atondu izan ez balu, Durangon, gutaz gainera, beste musika talde berri asko sortzea ahalbidetu duela. Horrela, Durangoko panorama musikala berpiztu du. Bestalde, ikasturte honetan ezingo dugu kontzertu askorik eman, taldekide bi kanpora doazelako, baina ez dugu geldirik geratzeko asmorik. Denbora horretan, prest ditugun kanta berrieekin ondo grabaturiko disko bat ateratzeko aprobetxatuko dugu.

Gai librean

Bitartean, tartean, artean

Ez ditut limiteak ondo ikusten, ez dakit ikusezinak diren niretzat, edo ulertzen ez ditudan. Beti galdetu diot neure buruari (buruan egiten ziren galderak?) zergatik agertzen diren berriak, aldizkari eta Teleberrietan bereizita, ukitu beharrean, ukatzen diren kaxoi isolatuak bailiran. Gaur galdetu diot neure atalen bati, non kontatuko nukeen nik La Palma irlan gertatzen ari dena, non pandemia, non biolazio bat. Politika? Ekonomia? Kultura? Besteak?

Ez dakit non amaitzen naizen ni eta non hasten den bestea. Ez dakit zenbat distantzia dagoen bestearekin, “bestea” bezala kalifikatu eta hainbeste konnotazio dituen beste horrekin. Ez dakit urrun dagoen, edo azala ukitzen didan, ez dakit zenbat dudan beste horretatik barruan eta zenbatean naizen ezberdin.

Emakume bat imajinatu dut Afganistaneko kaosaren erdian. Ez dut jakin



Eider Chaves Gallastegui
Irakaslea

Eta jarraituko dugula “bestea” beste egiten, urruntzen, min gutxiago eman dezan

Limiteak dagoeneko ez dira argiak, ez daude lerro zuzenekin markatuta, ez lurtean ez gorputzean

aldizkariko zein orrialdetan kontatzen den bere egoeraren miseria. Pentsatu dut batzuentzat negozioa baino ez dela izango, beste batzuentzat gastu ekonomikoa, edo erronka humanitarioa, edo estrategia politikoa. Ezin izan diot esan leku bakarretik begiratzeko gai baino ez naizela, ni eta bestearen arteko amildegi horretatik. Bakoitzak era batean sailkatuko duela, kaxoi bakarrean kondentatuz

bere existentzia, edo bere existentziaren kontakizuna, zehatzago izatearren. Ez garela gai izango bere egoera osotasunean ulertzeko, bere konplexutasuna onartzeko. Mingarriegia delako, zailegia, konplikatuegia.

Eta jarraituko dugula “bestea” beste egiten, urruntzen, min gutxiago eman dezan, ulergarriagoa izan dadin. Eta jarraituko dugula limiteak limite egiten, frontera forman baino askoz modu gehiagotan existitzen diren limiteak eraikitzen. Eta jarraituko dugula kontakizunak kaxoi bakarrean sartzen, errazago identifikatzeko.

Tanta txiki bat erori zait orduan, oso lotsatia, ia lotsaren lotsaz berriro begira bueltatu dena. Limiteak dagoeneko ez dira argiak, ez daude lerro zuzenekin markatuta, ez lurtean, ez gorputzean. Onartu ez arren, limiteak dagoeneko edonon daude, eta hortaz, agian, ez daude. Agian.

Kepa Arroitauregiaren oroimenezko txapelketak goi mailako pilotariak batuko ditu Abadiñoko Tornosolo trinketean

Paleta gomako bikote bat mistoa izango da, Nagore Martin arabarrak eta modalitateko onena den Santiago Andreasen argentinarrak osaturikoa



Tornosolo pilota elkarteko, Munduko Pilota Batzarreko eta Mankomunitateko ordezkariak, txapelketaren aurkezpenean.

argentinarra gaur egun modalitate honetan dagoen "palistarik onenarikoa da, onena ez bada", Tornosolo pilota elkarteko Ander Martinen esanetan. "Adituen ustez, eurak dira irabazteko faboritoak", gaineratu zuen elkarte bereko Ander Antxiak txapelketaren aurkezpenean. Eskualdeko palista bi ere arituko dira: Iñigo Arrieta durangarrak Unai Sagarzazugaz osatuko du bikotea, eta Mikel Iraurgi abadiñarrak Gorka Pablosegaz. Urriaren 1ean eta 15ean dira kanporaketak.

Emakumeen paleta goman, Amaia Larralde-Sylvie Halsouet bikotea da faborito, baina maila handiko palistak datoz eta txapelketa berdindua itxaroten dute antolatzailleek. Urriaren 8an, 15ean eta 22an dira kanporaketak, 18:30ean hasita.

Txapelketa denetako finalak urriaren 29an jokatuko dira, Tornosolon.

Azkenik aipatzekoa da aurten 'Kepa Arroitauregi' saria banatuko dutela, Keparen baloreak ondoen ordezkatzan dituzten pilotarien artean.

Txapelketa Tornosolo elkarteak antolatuko du Munduko Pilota Batzarren eta Durangaldeko Mankomunitatearen laguntzagaz, besteak beste.

TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

Kepa Arroitauregiaren oroimenezko trinkete txapelketak bigarren aldia hasiko du gaur. Buruz burukoan, Ipar Euskal Herrian oso maila onean dabilzan lau pilotariren artean egongo da txapela. Bestalde, emakumeen paleta goman eta paleta goma mistoan, munduko txapelketetan aritu diren hainbat pilotari ikusteko aukera egongo da Abadiñoko Tornosolo trinketean.

Iazko lehenengo aldia finalerdietan eten behar izan zuten, COVID-aren agerraldi berri bategatik. Gerora, txapelketa amaitzen ahalegindu dira, baina ez da posible izan. Aurten, printzipioz, ez du ematen oztoporik egongo denik txapelketa osorik jokatzeke, eta ahalik eta karteldegirik erakargarriena osatzen ahalegindu dira.

Buruz buruko txapelketak lau pilotari ditu eta bizkorra izango

da: finalerdiak eta finala. Urriaren 15ean, Inhar Ugartek eta Ekhi Ziarrustak neurtuko dituzte indarrak, eta urriaren 22an, Asier Aspuruk eta Eneko Maizek. Aspuru da faboritoa txapela irabazteko, baina garaipena garesti dago, gainerako hiru pilotariak ere maila onean dabilza-eta Ipar Euskal Herriko torneoetan. Bestalde, pilotari abadiñarrak albiste itzel bat jaso du oraintsu: Superprestige torneoan

jokatuko du, Ipar Euskal Herriko txapelketarik garrantzitsuenan.

Paleta goman, kalitatea

Binakako paleta goman, bikote bat ezik gainerako guztiak gizonak osaturikoak dira. Nagore Martinek eta Santiago Andreasenek osaturikoa da salbuespena. Martin arabarrak sarritan erakutsi ditu paleta gomarako dituen asotariko dohainak, eta Andreasen

"Entrenamenduetan baino denbora hobeak egin nituen bost probetan"

Karmele Gisasola Zelai III.ak emakumeen lehenengo pentatloi txapelketa irabazi du



Karmele Gisasola txapela jantzita Azpeitiko zezen plazan. UZTARRIA UKT

HERRI KIROLAK • J.D.

Karmele Gisasola Zelai III.ak sekulako lana egin zuen joan zen zapatua Azpeitiko zezen-plazan, eta emakumeen lehenengo pentatloi txapelketako txapela jantzi zuen.

Parte hartzaileak bost probatan aritu ziren: harri-jasotzen, giza proban, aizkoran, txingak eroaten eta korrika. Zelai III.a aurretik ibili zen proba guztietan, baina oso gertu izan zuen Orbe, eta, amaieran, mallabitarrak apur bat gehiago estutu behar izan zuen korrika saioan. Azkenean, 18.57ko denboran amaitu zuen proba. Gustura dago eginiko lanagaz. "Etxeko entrenamenduetan baino denbora hobeak egin nituen bost probetan", adierazi du.

Lucia Orbe sailkatu zen bigarren (20.48) eta Garazi Arrutik osatu zuen podiuma. (25.31).

Elorriok garaipenagaz hasi du liga, eta lurretakok porrotagaz

Lehenengo jardunaldian, Elorriok 4-1 menderatu zuen Sondika

FUTBOLA • J.D.

Taldeakoko ligak martxan hasi dira apurka-apurka. Joan zen asteburuan, Bizkaiko 22 futbol taldek Ohorezko Mailakori ekin zioten, tartean Durangaldeko bik: Iurretakok eta Elorriok.

Iurretako urteko lehenengo garaipena lortzen ahaleginduko da zapatuan, Larrakozelaian

Elorriok, eskatu zitekeen hasierarik onenean, 4-1 menderatu zuen Sondika taldea etxean, Eleizalde futbol zelaian. Partidua galtzen hasi zen eta buelta eman zion. Emaiza horregaz Ohorezko Mailako lider kokatu zen. Zapatua honetan, 18:15ean, Otxarkoagaren zelaia bisitatuko dute.

Iurretakok, oster, porrot bat egin zion denboraldiari: 1-0 galdu zuen Zamudioren zelaian. Zapatua honetan, 17:00etan, denboraldiko lehenengo garaipena lortzen ahaleginduko da Larrakozelaian, zaleen animoen laguntzagaz.

Kategoria bat beherago, Maila Gorenean, Durangaldeak ordezkari bi ditu: Abadiño eta Zaldibarko Zaldia. Jardunaldi bi joan direnean, garaipen bana dute talde biek. Abadiñok Ermua taldea hartuko du etxean, zapatuan, eta Zaldia Astrabudua bisitatuko du.

Azkenik, beste maila bat beherago, Lehenengo Erregionalean, Ezkurdik eta Amorebietak derbi batez ekin zioten denboraldiari. Durangarrak nagusitu ziren: 2-0.



2019an eginiko Durangoko duatloiko irudia.

Duatloia eta lasterketa herrikoia domeka honetan, Durangon

Kadete eta gazteei begira, supersprint modalitateko proba ere antolatu dute aurten, lehenengoz

DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko duatloia nobedadeekin dator. Batetik, aurten sprint modalitateko proba ez ezik, supersprintekoa ere antolatu dute, lehenengoz. Bestetik, Mugarra Triatloi taldeak urtean zehar Durangon antolatzen dituen ekimen nagusi biak egun eta toki berean bateratu dituzte aurten, domeka honetan eta Ezkurdin.

Gorka Uribeetxebarriaren Oroimenezko Durangoko XIII. Duatloia indartsu dator, Euskadiko Txapelketa ere izango da eta. Baina hori ez da nobedadea: 2019an eta aurreragoko beste hainbat

alditan ere Durangon banatu dira txapelak. Berritasun nagusia supersprint modalitateko proba da. Sprint modalitatekoa baino laburragoa da eta kadete eta jubenil mailako gazteengaitik antolatu dute. "Euskal Herrian distantzia horretako lasterketa gutxi dago. Gazteak federatzen direnean, nagusiekin eta esprint distantzietan aritu behar dute eta ez da onena eurentzat", adierazi du MugarraTT-ko Serafin Bereziartuak. Urteroko hitzordu izan dadila gura dute. Supersprint distantziaren irteera 14:30ean izango da, eta sprint distantziarena, 16:30ean. Beste no-

bedade bat da duatloia normalean martxoan egiten dela, baina aurten, pandemiak eraginda, urrira atzeratu dute, lasterketa herrikoia egin ohi den egunera.

Goizean proba herrikoia

Goizean, gazte mailako duatloiak eta lasterketa herrikoia egingo dituzte. Azken hori 10:00etan hasiko da. 14 urtetik gorakoei bideratuta dago. Bizikletan Orozketarako joan-etorria edozein bizikletagaz egiteko modukoa da. Gazteen duatloiak 11:30ean hasiko dira. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 09:00etan.

Tabirako Baqueko nagusiek kamiseta berdeagaz jokatu dute

Durangoko klubak Cafes Baqué babesle duenetik 50 urte betetzen dira aurten, eta, efemeride hori gogoratzeko, ohiko kolore urdina berdearengaitik ordezkatu dute



Tabirakoko emakumeen talde nagusia.

SASKIBALOA • J.D.

Joan zen asteburuan, Tabirako klubeko 48 taldeen aurkezpena egin zuten Durangoko merkatu plazan. Normalean urdin kolorea nagusitzen den ekitaldian, berdea izan da aurtengo protagonista. Cafés Baquéren eta Tabirakoren arteko lankidetzaren 50. urterreko kamiseta berdea jantzi zuten talde guztiek, kafe-entresaren logotipoaren kolorea delako. Entrenamenduetan eta ekitaldi ofizialetan erabiliko dute.

Horrez gainera, emakumeen eta gizonen talde nagusi biek beste kamiseta bana ere estreinatu zuten, beren beregi aurtengo partiduak jokatzeko eginikoa.

"Denbora honetan guztian, Cafés Baquék gure klubean ipini duen konfiantza eskertzeko modua da", azaldu zuen Hilario Pérez

Adin guztiak kontuan hartuta, Tabirako saskibaloia klubak 48 talde ditu aurten

Tabirakoko presidentek. Biharamunean, berde kolorea Durangoko kaleetara atera zuten, Andra Mariko elizpean hainbat ekitaldi egin zuten-eta, kluba durangarrangana gerturatzeko.

Jokaldia

Lan gogorak beti dakar bere saria

Bai, egia da eta horrela gertatzen da. Nahiz eta ez jakin noiz eta zelan helduko den, lan gogorak beti dakar saria. Bestela, galdetu nire taldeko [Eneicat] Ziortza Isasi elorriarrari.

Flandesen lehiatutako munduko txapelketatik bueltan, Valentzian dago jadanik. Pistako Europako txapelketaren ateetan dago, laster dator hitzordu garrantzitsu hori ere. Denboraldi hasiera gogorra izan zuen pandemiak dena hankaz gora jarri zuelako, baina Isasik ez zuen etsi. Egoera edozein dela ere, lanean jarraitu izan du buru-belarri. Lan hori nabarmendu nahi dut. Gutxi ikusten duten eta kanpora begira inolako oihartzunik ez duen lan nekagarria da, sarritan ilunpean kilometroak egiten eta inoiz negar anpuluak masailetatik behera. Baina, eguna joan eta eguna etorri,



Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza

"Nahiz eta ez jakin noiz eta zelan helduko den, lan gogorak beti dakar saria. Bestela, galdetu Ziortza Isasiri"

"Eneicat taldea Abadiñon kokatzen ari gara eta neska-mutikoei begirako eskola sortuko dugu"

errepidera irten du eta beti izan du irribarre bat bere ingurukoentzat.

Azken aspaldian, bere burugogorkeria bikain hori eta zortzi hilabeteko konstantzia eredarriak izan dira,

lorpenen oinarria: errepideko Europako txapelketan parte hartu du lehenengo, eta mundukoan horren ondoren. Hemendik aurrera zer? Hortxe dago orain kontua. Seguruenik albiste onak izango dira han eta hemen, horretarako lanean ari gara eta.

Beste albiste on bat da Eneicat txirrindularitza taldea Abadiñon kokatzen ari garela eta neska-mutikoei begirako umeen eskola sortuko dugula. Gaztetxoaren artean txirrindularitza sustatzea da gure helburua. Ni neu bertan ibiliko naiz, eta, nola ez, gure Ziortzak ere bere esperientzia eskainiko digu. Beraz, guraso guztioi dei bat egiten dizuet, 6tik 14 urtera arteko umeak badituzue, eta txirrindularitza gustatzen bazaizue, etorri beldur barik. Gure leloa hau da eta: hasi bizikletan gozatzen eta ikasi gure baloreak.

DURANGALDE



Kuku-praka

Kuku-prakak ederretik bezainbeste du piztitik. Bere hostoak bihotzeko arazoak arintzeko erabili izan dira historian zehar. Arritmia, adibidez. Baina, kontuz.

Oso landare toxikoa ere bada. Dosia gainditzen bada, hilgarria izan daiteke. Urkiola aldean, kuku-prakaren hainbat ale topatu daiteke.

KO TXOKOAK!

Santa Eufemia ermita

Irazolako Santa Eufemia ermita oharkabean igarotzen den txoko horietako bat da. Ezin toki baketsuagoan dago. Han inguruan dauden hiruzpalau baserrien artean gordeta. Gutxi gorabehera Erdi Arokoa den ermitak isiltasunaz gozatzeko aukera eskaintzen du bere teilatupean.





F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AUKERA
95 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Eguzkitsua.

C.E.E=F Prezio negoziagarria



DURANGO
MADALENA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiakin.

155.000€ C.E.E=G



MATIENA
3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Berriztatua.

149.500 € C.E.E=F



IURRETA
3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzera sartzeko moduan.

140.000 € C.E.E= F



ABADIÑO
ZELAIETA: Erdi berria. 85 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ikuspegiak.

198.500€ C.E.E=



DURANGO
JESUITAK: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela handiak. Erdialdean. Ganbara. Eguzkitsua.

199.500 € C.E.E=G



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

MAÑARIA

KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeitxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeko. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserría salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserría. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA

ALOKAIUAN
IURRETA: Arriandi. 3.036m²-ko lokala alokairuan. Aldagelak, komuna eta 5 tonako zubi garabiagaz.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com



MATIENA
3 logela
TRañABAREN HIRIBIDEA: 65 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebaldea). ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m²-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

175.000 € C.E.E: E negoziagarria



DURANGO
84 m²
EUSKAL HERRIA KALEA: 10 urteko antzinasuna. 84 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (ipar-mendebaldea). Leku onean kokatua. EZIN HOBEA: 18m²-ko garaje itxia.

219.000 € C.E.E: E



BERRIZ
3 logela
79 m²
MAZAGA: 79 m². Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. 2 balkoi. 40 m²-ko ganbara. (etxebizitzaren gainean). Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (mendebaldea) Berriztatzeko. Ezin hobea norbere gustura jartzeko. Leku lasaia. Igogailua.

124.000 € C.E.E: F



DURANGO
79 m²
3 logela
IPARAGIRRE: 79 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta despentsa. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebaldea) ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. Garajea. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

245.000 € C.E.E: E negoziagarria



ABADIÑO
2 Logela
ITURRITXO: 16 urteko antzinasuna. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoaldea) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m²-ko garajea, 4,63 m²-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.

198.500€ C.E.E: E



ABADIÑO
300 m²
SAGASTA AUZOA: 20 urteko antzinasuna. Bifamiliarra (erdia). 300 m² erabilgarri 4 altueratan banatuta. Egongela, sukalde jantzia, 7 logela, 4 komun eta 3 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar / Hegoaldea). Argitsua. (azalera handia kristalezkoa). Inguru naturala. Garaje itxia, 60 m²-koa. Lursail partekatua, 20.000 m²-koa. Igerileku klimatizata, portxea, egur-labea.

549.000 € C.E.E: Bidean



Fernando Uribe

Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran.
180.000 € / E.E.Z=E

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bulegoa. **200.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € E.E.Z=G**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ATXONDO

Arrazola errepidea: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

BERRIZ

Berrizbeitia kalea: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

BIDEGAIN KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **210.000 € / E.E.Z=E**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeko baserría lurzoruagaz. **290.000 € IURRETA**

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA

TRañABAREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

MAÑARIA

KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. Txokoa aukeran. **150.000 € / E.E.Z= BIDEAN**

OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

GARAJEAK SALGAI

Durangon eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

BERRIAK - DURANGO

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z =E**



Eskelak



Anton Uberuaga Zabala 'Txatue'

2021eko irailaren 28an,
11. urteurrena

*Izardixe kopetan,
barrie arpeixen
mendixen nahiz kalien
maitie izen danien
beti etxekoan bihotzien*



*Bene gureztat beti izan zara
auzokide aingerua
gure etxeko beharrianetan
laguntzaile segurua
Udazkeneko haize epelaz
joan zara hartuz deskantsua
Gure bihotzetan zure IZANA
gelditu da iltzatua
Zure IZANA BENE izena
gelditu da iltzatua.*



Bene Egiraun Goiti

Imanol - Mertxe - Haizea - Larraitx
Elorrioren 2021eko iraila

Botikak

BARIKUA, 1 · 9:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

RUIZ, JUAN EL Alto-Bide
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 2 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

RUIZ, JUAN EL Alto-Bide
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA
Trañabarren 15. - ABADIÑO

MELERO, ROSA MARI San
Pedro 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 3 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

RUIZ, JUAN EL Alto-Bide
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA 4 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 5 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 6 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 7 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Erimodo, 11. DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Nerea (862. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Irailaren 26an 7 urte egin zenduzan. Oso egun polita pasatu gendun. Zorionak, **Oihan**!



Nahiak eta **Paulek** urriaren 2an 7 urte egingo dituzte. Asko maite zaituztegu!



Zorionak, **Miguelito**. Gandorrik bako oilarra. Beti bestieri pikuke, baija gaur zuri tokau jatzu pikukadie jasotzie. Zorion egun eder bat pasau daizule eta kukurruku asko ein luzeruen, hori señale ona izengo da eta.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 26° / 11° ☁

ASTELEHENA ↓ 21° / 9° ☁

EGUAZTENA ↓ 19° / 12° ☁

DOMEKA ↓ 22° / 11° ☁

MARTITZENA ↓ 21° / 12° ☁

EGUENA ↓ 22° / 11° ☁

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

“Ilusioz eta gogoz ikusten ditut jokalaria, baina oso maila gogorra da”

Juanjo Batizek Zornotzako Amorebieta futbol taldearen autobusa gidatu du azken 20 urteetan; bizi osoa darama Amorebietako bazkide izaten eta Athletic du bigarren taldea



Juanjo Batiz Zorriketa

Autobus gidaria

ZORNOTZA | 1957

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Juanjo Batiz urtarrilean zen erretiroa hartzeko, azken 20 urteak Amorebieta futbol taldearen autobus gidari ibili eta gero. Hala ere, taldeak Bigarren Mailara igotzea lortu du aurten, eta denboraldia amaitu bitartean behintzat, Batizek erretiroa atzeratzea eta taldeagaz jarraitzea erabaki du. Futboleko jokatakoa da zornotzarra, beheagoko kategoriatan. Inguruan mugitzen den diruak futbola desitxuratu egin duela uste du.

20 urtek askorako ematen dute. Baduzu kontatzeko moduko anekdota edo sekreturik?

Ez! (barrez) Jokalaria ondo portatzen dira. Gainera, autobuseko

kontuak han geratzen dira. Mailaz igo gareneko momentu horiek ditut gogoan. Ederra izan zen Hi-

“Ondo jokatzeko dutenean ondo jokatzeko dutela diot eta txarto jokatzeko dutenean txarto jokatzeko dutela”

rugarren Mailara igotzea, are gehiago Bigarren B Mailara. Ilusio handiagaz bizi izan nuen hura.

Eta zer esanik ez aurten Bigarren Mailara igotzea lortu izana. Inork ere ez zuen halakorik espero, eta hor gaude. Itzela izan da!

Zelakoa izan zen azken lorpen hori? Deskribaezina. Mailaz igotzea lortu zuten azken partidu horretan ez nintzen han egon. Madrilen nengoen eta telefonoz berba egin nuen jokalariekin. Handia, oso handia izan zen. Aurreko partiduan egon nintzen, Linaresen kontra irabazitakoan. Hura sekulakoa izan zen. Gero, Badajoz ere irabazi genion, galdutzat gensean.

Zelan ikusten duzu Amorebieta Bigarren Mailan?

Ilusioz eta gogoz ikusten ditut jokalaria, baina oso maila gogorra da. Emaizak hobeto joatea espero dugu. Orain arte ez dute txarto jokatu, baina aukera dagoenean gola sartu behar da. Aukera horiek ez aprobetxatzea garesti ordaintzen da maila honetan. Ez dago sekreturik, futbola aspaldi asmatuta dago.

Zer eskatuko zenioke taldeari?

Diren modukoak izaten jarraitzea, lagun taldea. Etorriko dira emaitzak. Eta mailari eustea, jakina! Taldea beti egon da bat eginda, horregaitik egin du egin duen bidea.

Zu zeu ere talde horren parte zara...

Bidaietan eurekin nago momentu oro, hartu-eman berezia sortzen da denon artean: jokalaria, talde teknikoa, zuzendaritza...

“Amorebietako jokalariei diren modukoak izaten jarraitzea eskatuko nieke, lagun taldea izatea”

Futbolzale amorratua zara?

Ez naiz zaletu amorratua, baina gustatzen zait futbola. Amorebietako bazkide naiz bizi osoan. Ondo jokatzeko dutenean ondo jokatzeko dutela diot eta txarto jokatzeko dutenean txarto jokatzeko dutela.

Amorebietako jarraitzaile leiala zara ala beste batzuen zale ere bazara?

Lehenengo, Amorebietako naiz, jakina. Gero, Athleticetako.

Zelan biziko zenuke Amorebietaren eta Athleticen arteko partidua?

Oso polita litzateke, baina pentsaezina. Amorebieta Lehen Mailara igota jokatu beharko litzateke; hobe hori Athletic jaitsita baino. Dena dela, Amorebietaren alde egingo nuke.

Ikusten duzu taldea Lehen Mailan?

Amets bat litzateke, betetzeko oso gaxa. Arrazoi ekonomikoak, futbol zelaia... gauza asko daude tarteko.

Mailari utsiz gero edo Lehen Mailara igotzen badira, jarraituko duzu autobus gidatzen?

Ikusiko dugu, ea zelan doan dena. Badut denbora horretan pentsatzeko. Urte asko eman ditut lanean eta badut gogo erretiroa hartzeko.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Normaltasunera buelta

Ahoz aho dabil. COVID-19ak hor dirau, baina kutsatze kasuak beherantz doaz eta bada-gosun-neurriekiko lasaitze orokortu bat. Agian goizegi da halakorik esateko, baina badi-rudi pandemia amaitzen doala eta bagabiltzala normaltasunera bueltatzen.

Normaltasuna badator: enpleguak sortuko dira, ekonomia haziko da eta garapenak bere erritmoa hartuko du. Beti aurrera, gora eta gora, lehengo moduan. Baina pandemia eta haren kudeaketa normaltasun horren ondorio baino ez dira izan: bizitza eta soldatapeko lana nahastearena, baliabide naturalak agortzearena, pobrezia, kapitalarena. Normal-normal, hain arin joan da garapena, horren ondo aurrerapena, etorkizuna horrenbeste hurreratu digu ze, jada ez zaigula etorkizunik geratzen. Normala. Etorkizunik ikusten ez duen belaunaldi oso bat, orainari harriska egitea baino beste irtenbiderik ez duena. Hori edo iraganera bueltatu daitekeenaren katu-ametsean sinestea, normaltasunera buelta.

Ez, normaltasunera ez gara bueltatuko. Tematuko gara eraistear dagoen eraikin bati erratza pasatzen, kristalei distira ateratzen, baina jausiko da. Eta gu barruan egongo gara alde egin ezean.

Normaltasuna amaituko da, halabeharrez. Ez dezagun behar baino gehiago luzatu. Amaiera horretatik hasi beharko dugu zibilizazio berri bat, aurrekoaren zigarrokin artean bada ere, komunitatean. Agian baliabide gutxiagorekin eta aje gehiagorekin, baina gizarte berri bat, egungo normaltasuna museoetan erakutsiko duena: inor gutxik ulertzen duen koadro horietako bat.

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491